

## Kultura

Berrizko Seiurte taldeak 'Ezpalak' disko berria aurkeztuko du Tolosako Bonberenean > 12



## Alde Zaharreko 21 tabernek indarrak batu gura dituzte

Sapuherrri sustapen elkarteak sortu dute Alde Zaharreko 21 tabernen artean. Goienkaleko giroa "hiltzen" dabilela-eta, indar txikiak batzea erabaki dute. Pintxo-poteagaz ikusi dute zerbait eskaintzen dutenean jendeak erantzun egiten duela. "Bezeroek proposamen berriak eta mugimendua behar dituzte". > 2



Lehior Elorriaga

## Bateginezek bertan behera utzi du bere jarduna 22 urteko ibilbidea eta gero

Bateginez gobernuz kanpoko erakundeak agur esan dio 22 urteko elkartasun dinamikari. Guatemalako Pochuta herrian egiten zuen batez ere lan, eta hori bideratzeko Apsadec elkarteak sortu zuten Pochutan. Baina azken boladan Bateginezek konfiantza galdu du Apsadeceko zuzendaritzarengan. Ondorioz, elkartearen zikloa amaitzea erabaki dute. Ekainean jaialdi bat antolatzeko asmoa dutela aurreratu dute elkarteko arduradunek. > 4



ekin S. Coop.  
Arriagane industrialdea (Boroa auzoa)  
48340 Zornotza (Bizkaia) Spain  
[www.ekin.es](http://www.ekin.es)

**Produkzio fabrikak Brasilen,  
Indian eta Mexikon**

Grupo  CATALANA  
OCCIDENTE

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

### Durango > 3

Bete bako 15 mozio eraman ditu EH Bilduk udalbatzarrera

### Durangaldea > 6

Saltzaile batzuek adinduei iruzur egin izana salatu dute

### Otxandio > 9

EHE elkarteak Euskaraz Bizi Eguna antolatu du biharko

### Berriz > 9

Herri ortuak maiatzerako prest egotea aurreikusten du udalak





EH Bilduk eskatuta, ezohiko osoko bilkura egin zen atzo eguerdian.

## Bete bako 15 mozio eraman ditu berriro bilkurara EH Bilduk

Mozioren kontra egin zuten EAJk eta PPK, eta PSE-EE abstenitu egin zen

**DURANGO** Markel Onaindia EH Bilduk (Bildu eta Aralar udal taldeak) eskatuta, ezohiko osoko bilkura egin zuten atzo, Durangon. Agintaldian onartu eta gero, bete ez diren hamabost proposamen eraman zituen berriro, koalizioaren ustez garrantzitsuak direlako. EAJren gestioa kritikatu zuen Dani

Maeztuk: “Onartutakoa exekutatu behar zuen gobernu taldeak, baina ez du egin”. Hauek dira berriro aurkeztutako proposamenetako batzuk: Landako Guneari izaera publikoa ematea, udal kontu orokorraz kanpo txostena egitea, Gasteizerako autobusaren gaian administrazioekin batzartzea, etxe kalera-

tzeak agintzen dituzten banke-txeekin tratua etetea eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berriro aztertzea. Guztiak atzera bota zituzten, EAJk eta PPK kontra bozkatu zutelako eta PSE-EE abstenitu egin zelako.

**Berba, EH Bilduk bakarrik** Ezohiko udalbatzarra benetan

berezia izan zen. Izan ere, EH Bilduko zinegotziek bakarrik egin zuten berba. Horregatik, koalizioa Ion Andoni del Amok “erantzukizun falta” egotzi zion EAJri. Eider Uribek, ostera, antzezpena egitea leporatu zion gobernu taldeari.

### Eztabaida, kanpoan

Udalbatzarrean egon ez zen eztabaida kanpoan gertatu zen. Izan ere, EAJk prentsaurrekoa eman zuen udalbatzarraren aurretik. Goiztidi Diaz bozeramaileak egin zuen berba: “Lotsagarria da sekula inongo borondate-terik eduki ez duten Bilduk eta

Aralarrek antzezlan bat izango den osoko bilkura bat antolatzea”. Diazen arabera, “zarata” erabilia, herritarrak nahastea da koalizioaren helburua.

Bestalde, mozioekin eginiko kritikari erantzunez, gobernu taldeak agintaldian aurrera ateratako 27 ekimen gogoratu zituen Diazek. San Rokeko biribilgunea eta aparkalekua, aldaketa klimatikoaren aurkako programa, babeseko etxebizitzaren kooperatibak, karkabengarbiketa eta Durangoko Azokari diru-laguntza handitzea dira garatutako ekimen batzuk.

PSE-EEK ere ez zuen berba hartu udalbatzarrean, baina prentsa ohar bat banatu zuen. Sozialisten iritziz, EAJren eta EH Bilduren arteko joko bat izan da, eta ez dute sartu gura izan. Gainera, EH Bilduk “jarraera elektoralista” duela salatu du, hauteskundeak baino hilabete lehenago ezohiko udalbatzar bat sustatzeagatik.

### Ordutegiari kritika

Atzoko bilkura eguerdiko 12:00etan egitea EH Bilduri ez zitzaien gustatu –normalean 17:00etan izaten da–. Batzarrera joateko gonbita egin zuten herritarrei, eta ordutegia EAJk “herritarren parte-hartzea zailtzeko” ipini zuela uste du koalizioak.

## Hamadako Izarrak: saharauiei laguntzeko ekimen berria

Hilaren 20tik 24ra arropa eta bizikleta bilketa egingo dute udalekuetarako

**DURANGO** M.O.

Herria auzo elkarteak sustatzen duen *Oporrak bakean* programa indarra galtzen dabil. Gero eta familia gutxiago dira udan ume saharauiak etxean hartzera animatzen direnak. Baina elkartasunak beste forma batzuk hartu ditu Durangaldean. Duela urte bi, esaterako, Rio de Oro sortu zen, aniztasun funtzionala eta askotariko ezintasunak dauzkaten umeak Tindufeko (Aljeria) kanpalekuetatik irte-

tea posible egiten duen proiektua. Orain, berriz, Hamadako Izarrak elkarteak jaio da. Harre-  
ra familia izandako pertsona batzuek osatu dute, eta 7 eta 15 urte arteko hamabost umerentzako udaleku bat antolatzea da euren proiektuaren asmoa.

### “Familia giroa”

Hamadako Izarrak taldeko kideek Herria elkartearen egoitzan egin zuten prentsaurrekoa, eguaztenean, eta apirilaren

20tik 24ra udalekuetara datozenentzako arropa eta bizikleta bilketa egingo dutela adierazi zuten. Arropak Kurutzia ikastolan, Landako eskolan eta Jesuitak ikastetxean jasoko dituzte, eta bizikletak Bizibiken. Garazi Etxebarriak azaldu zenez, Axpeko baserri batera eramango dituzte umeak, boluntarioekin batera. Baina harrera familia izandakoek ere zainduko dituzte umeak, “familia giroa mantendu” gura dutelako.



Hamadako Izarrak elkarteak Lutxi Urbiola, Pedro Maria Martin eta Garazi Etxebarria.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean

PROTESI BERRIAREKIN

mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREIALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZAITU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 HIRI ARTEKO FRAKETAK (3D) EGITEN DITUGU HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15%

-rainoko DESKONTUAK

WEB GUNEKO TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

[www.clinicaekoden.com](http://www.clinicaekoden.com)

36 HILABETE ARTEKO IRABAZKORREK INTERESK GABE\*

\* 36 hilabete baino gehiago irabazi ez dezake.

Lomen Erantz deia sarbidean zegoa

R.P.S. 44/14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

## Bateginezek agur esango dio 22 urteko elkartasun dinamikari

Bateginezek konfiantza galdu du Pochutako Apsadec elkarteko zuzendariengan



Bateginezeko kideak prentsurrekoan; Raquel Calvo, lehen planoan.

**DURANGO** Markel Onaindia Bateginez gobernuz kanpoko erakundea desagertu egingo da. Guatemalako Pochuta herrian egiten zuen batez ere lan, eta hori bideratzeko Apsadec elkar-tea sortu zuen Pochutan. Baina azken boladan Bateginezek konfiantza galdu du Apsadec-eko zuzendariengan, eta lankidetzara amaitutzat eman du. Ondorioz, elkartearen zikloa amaitu egin da; elkarteko kideek Bateginez

desegitea erabaki dute asanbladan, eta 22 urteko elkartasun dinamikari agur esango diote. “Ez zeukan zentzurik beste proiektu batez zerotik hasteak”, esan du prentsurrekoan Raquel Calvo. Ekainean jaialdi bat antolatuko dute agur esateko.

Pochutara eginiko azken bisitan, Apsadec-eko laguntza onuradunei kobratu egiten zieten Bateginezekoak. Erabaki hori euren kabuz

hartu zuten, eta gerora ere ez zuten informaziorik eman.

40 bazkidek eta umeei bekak ematen zizkieten Durangaldeko 300 lagunek osatzen zuten Bateginez. Urtero 87.000 euro inguru bidaltzen ziren Pochutara. Eskolaratzean, bizi baldintzen hobekuntzan eta emakumeen jabe-kuntzan egin zuten lan. Egoitza bat ere zabaldu zuten bertan, botikak emateko eta ikastaroak-eta eskaintzeko, esaterako.

## Apirileko Feria helduko da bihar Elorrioko kaleetara

Sevillana dantzen ikastarokoek antolatu dute jaia



Sevillanen ikastaroan hamabost lagunek parte hartzen dute.

**ELORRIO** M.O.

*Elorriok kolore berezia dauka.* Sevillagaz berba-jokoa eginez, jaialdia iragartzeko karteletan agertzen den leloa hori da. Izan ere, bihar Apirileko Feria helduko da Elorrioko kale eta tabernetara, sevillanekin, *rebujito* edariagaz eta bestelakoekin. Elorrioren sevillanen ikastaroan dabilzanek antolatu dute feria.

18:00etan Xara tabernan elkartzeko deia egin dute. Tablaio flamenko bat ipiniko dute bertan, eta *rebujitoa* eta pernila eskainiko dituzte. Gero, poteoa egingo dute jaialdiagaz bat egin duten beste taberna batzuetatik. Isa Garcia antolatzaileak esan duenez, sevillanez gainera, runbak ere dantzatuko dituzte.

## Etxerainoko zuntz sarea ezarriko du Telefonikak

Gobernu taldeak azaldu du lanak hasi dituztela

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak jakinarazi du, “Internet herriko baserri urrunen eta eramateko, Abadiñon etxerainoko zuntza (FTTH) ezartzeko” lanak hasi dituela Telefonikak. Prentsa oharra zabaldu du gobernu taldeak, konpromiso hori Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak Telefonica enpresako ordezkari batzuekin egindako batzar baten ondorio dela azaltzeko. Batzar horretan, alkateak enpresari eskatu zion “ahalegin berezia” egin dezala, oraindik ere Internet iristen ez den tokietaraino sarea zabal-tzeko. Oharrak biltzen duenez, “herrian badira baserri batzuk erdialdetik oso urrutiti, eta horietaraino Internet eramatea

oso garestia eta neketsua da. Hala ere, Telefonikak hitzeman du estaldurarik ez daukaten herrietarrek kalitatezko zerbitzua izango dutela”.

400.000 euroko inbertsio bati esker, urrirako herriko 3.000 etxebizitzatara ailegatuko da zuntza

Abadiñoko Udalak azaldu du, 400.000 euroko inbertsio bati esker, urrirako herriko 3.000 etxebizitzatara ailegatuko dela zuntza. Gobernu taldeak azpimarratu duenez, “komunikazio finkoko teknologia aurreratua” izango da jarriko dutena.

## Bidegorria pintatu ondoren, lanak amaitzear Arbizolean

Eguraldi onak margotze-lanak egitea ahalbidetu du

**IZURTZA** Joseba Derteano Urtarrilaren erdian hasi zituzten Arbizolea industriaguneko urbanizazio lanak, eta, hiru hilabeteren ostean, ia amaituta daude. “Obrarik handiena egin da dago, xehetasun txikiak falta dira”, adierazi du langile batek. Industriaguneko eta Etxano

auzorako zubi ingurua asfaltatu ostean, bidegorria pintatu behar zen, baina, euriaren ondorioz, atzeratu egin behar izan zuten lan hori; eguraldia lagun, asteon margotu dute. Gainera, zubiaren ondoan, oinezkoek eta bizikletek lehentasuna dutela dioen kartela ipini dute.



Oinezkoek eta bizikletek lehentasuna izango dute zubian.

**urtiaga** Ofertak dendan

Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Salaguren kalea, 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374  
E-maila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

**hitz** liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
ERLEA 8 Euskaltzaindia (2015)	MINIS liburutzak Gessumi Forner (2014)	LOST AND FOUND Buena Vista Social Club (2015)



## Batxilergoa: ikasle osoa lortzeko lanean beti!

**Alba Orbegozo eta Leire Larra-be:** 2013ko irailean Maristetan sartu ginenean, gure beldurrak eta segurtasun ezak airean zeuden, baina hilabete batzuk soilik behar izan genituen konturatze-ko **Maristak ikastetxe ezberdin bat zela**, irakasteaz gainera, pertsonak heztea zutelako eta dutelako helburu bertan.

Irakasleek ekintzak egitea proposatzen dizute, eta gero konturatzen zara zer garrantzitsuak diren ekintza horiek! **Erronkak dira ikasteko modu berriak.** Batxilergoko 1. mailan erronka zail bat izan genuen Biologian, eta batzuetan amore emateko gogoa izan genuen, baina ikasi genituen gauzak ez ditugu inoiz ahaztuko, guk geuk egin behar izan genituelako! Maristak ikastetxeak asko bultzatzen du ikasteko metodo hori, zuk zure ikasteko baliabideak lortzea. Esfortzu handiagoa egin behar da? Bada, bai; **baina askoz ere gehiago ikasten da!**

Ikaskide askok galdetzen digute ea zergatik ematen dugun izena ekintza guztietan parte hartzeko. Eta guk argi dugu: gauza berriak bizi nahi ditugulako! Maristak ikastetxeak gauza berriak bizitzeko milaka aukera ditu. **Madriken** lehiaketa

ta batean egon ginen, eta han, jende ugari ezagutzeaz aparte, ikasi genuen erronka baten aurrean aurrera egiteko taldean lan egin behar dela, eta arazoak alde batera utzi behar direla. Aurten **Alemaniarra** joan gara trukea egitera; primerako esperientzia izan da!

Batxilergoko 2. mailara heldu ginenean, beldurra baino gehiago geneukan, izu ikaragarria zen hura! Baina hilabeteak

**"Erronken bidezko metodologia berriagaz askoz ere gehiago ikasten da!"**

aurrera joan ahala konturatzen zara ez dela hainbesterako. Asko ikasi behar da, bai, baina irakasleak hor dituzu momentu guztietan zuri laguntzeko prest. **Ziur gaude lortuko ditugula Al-baitaritzea gradua eta Lehen Hezkuntzako gradua.**

Gainera, eskolak ikasteko metodo berri bat sartu du batxilergoan, **ikasketa kooperatiboa.** Mailak taldeka jartzen ditu, baina ez hori bakarrik, azaltzeko eta ariketak egiteko

metodo berriak ere sartzen ditu. Zuk taldekideei laguntzen diezu, eta haiek zuri laguntzen dizute. Besteei gauzak azalduz gero, denok ikasten duzue, zuk zein besteek. Askotan irakasleak zerbait azaltzen du, eta ez diozu ezer ere ulertu, baina zure mahaiko ikaskideei galdetu, eta bakoitzak ulertu duenagaz **remix** bat egin, eta ondorio bat ateratzen da. **Ikasketen protagonista bihurtzen zara!**

**Oraindik ez dugu amaitu, hilabete batzuk falta zaizkigu, baina badakigu pena emango digula handik joateak, ezin hobeto gaudelako!**

**Idoia Urain:** Egia esan, hasieran, beldurrez joan nintzen **2008an** batxilergoa egitera, baina normala da, bizitza guztian Elorrioren ikasten eta Durangora pasatzea salto handia da! Hasierrako egunak izan ezik, niretzat batxilergoa kristoren esperientzia izan da, lagun berriak egin nituelako, leku berriak ezagutu nituelako eta **Suediarra** joateko aukera izan nuelako. Badaude momentu batzuk tentsio handikoak, azterketa garaiak eta lanak entregatzeko garaiak hurbiltzen hasten direnean, baina hori ere bizitzaren zati bat da.

Hala ere, momentu horiek balantza batean jarriz gero, du da barik gauza onek irabaziko lukete. **Zerekin gelditu naizen?** Joe! Galdera zaila da hori, ezin dut momentu bat bakarrik aukeratu. Gogoratzen dut, esate baterako, klasekoen artean ezagutzeko arrautzaren erronka, bertan ezagutu nituen lagunei esker talde batean abesteko izandako aukera, 2. batxilergoan egon nintzenean erabaki garrantzitsuak hartu behar izan nituen momentua, klaseko giro ona, irteerak eta selektibitate egunean matematikako azterketatik irten nintzenekoa. Oroitzapen horiez gain, beti gogoratu dut klasean disfrutatu egin behar genuela esaten zigutela.

**Zer egin dudan batxilergoa amaitu eta gero? Disei-**

**nu industrial eta produktu garapenerako ingeniari-tza ikasketa** amaitu dut, baina horren aurretik zalantza asko izan nituen; ez nekien zer egin, unibertsitatera joan edo Maristetan goi mailako ziklo bat egiten geratu. Bertako irakasleei eta **orientatzaileari** eskerrak eman behar dizkiet, orientazio bileretan, **neuk neure buruan neukan konfiantza baino konfiantza handiagoa eduki zutelako nigan, eta unibertsitatera joatera animatu nindutelako.**

Ora in, ostera, Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza **masterra** egiten nabil, datorren urtean amaitzeko asmoagaz, eta, bukatu ostean, ea lortzen dudan ikasi dudana arloan lan egitea.



Ezkerretik eskumara Ane Rivas, Leire Larra-be eta Alba Orbegozo.



# maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com





**Aurrematrikulak**  
**Batxilergoa**  
 Maiatzaren 4tik-14ra  
 Zikloak Maiatzaren  
 25etik  
 Ekainaren 5era

**LOMCE**  
**argitu nahi?**  
 Etorri txarria eta Ate  
 Irekietara! Apirilaren  
 22an 18:30ean

Hasi gure Gai Komunikatzaileekin! Bilkak  
 Ed. 474 eta 475 (4ta-7. urteak), O. 474 eta 475 (8. urteak)  
 71.000 eta 71.000 (8. urteak), Ed. 474 eta 475 (8. urteak)



# Hainbat saltzailek pertsona nagusiei iruzur egin dietela salatu dute herritar batzuek

Alba cultural siglo XXI enpresak egindako salmentak erreklamatu dituzte kontsumitzaileen bulegoan

**DURANGALDEA** M. Onaindia Hasieran opari bat zirudiena, dirutza balio izan duen erosketa bihurtu zaie. Alba cultural siglo

XXI enpresako saltzaileek pertsona nagusiei iruzur egin dietela salatu dute herritar batzuek kontsumitzaileen bulegoan. Ai-

tziber Fernandez Madariaga da salaketa jarri duenetako bat, eta 84 urteko amari gertatutakoa kontatu du. Saltzaileak etxera

joan zitzaizkion, eta esan zioten burko bat oparituko ziotela, bidalketa gastuak ordaintzearen truke. Baina, gero, koltxoi baten promozioa zeukatela-eta, hori zatika erosteko proposamena egin zioten. Kontratua sinatu zuen, eta, konturatu orduko, 2.000 eurotik gorako erosketa egin zuen. Amaren etxera joatean, larritu egin zen Fernandez: "Koltxoia, burkoa, aspiragailua... Amak behar ez dituen hainbat gauza zeuden; nahastu egin zuten saltzaileek". Fernandezen arabera, San Faustoko abadearen lagunak zirela esan zioten amari, engainatu guran.

Enpresara deika hasi ziren orduan, erosketa baliogabetu nahian. Baina Fernandezek dio

"presioak" jasan zituztela telefonoaren beste aldetik. Orduan, kontsumitzaileen bulegora joatea erabaki zuten. Erositakoa bueltatzeko epearen barruan zeuden, eta, erreklamazioa egin da, arazoa konpondu egin zen.

Kontsumitzaileen bulegoa Durangoko Askatasun etorbidean dago, eta Amankomunazgoak eskaintzen du zerbitzua. Bertako teknikari batek azaldu du otsailean eta martxoan lau pertsona joan direla Alba cultural siglo XXI enpresagaz arazoaren bat eduki dutelako, eta kasu guztietan konpontzea lortu dutela. Baina badakite lau kasu baino gehiago izan direla. Gainera, horrelako kekek sarri jasotzen dituztela esan du. "Jende nagusiak ez du diru kopurua neurtzen. Ez dakite 4.000 euro zenbat den". Horrelako kontraturik ez sinatzeko eta saltzaileek antolatzen dituzten batzarretara ez joateko aholkua eman du.

Alba cultural siglo XXI enpresaz ez du adierazpenik egin.



Askatasun etorbidean dago kontsumitzaileen bulegoa, Amankomunazgoak eskaintitako zerbitzua.

## Erabakitze eskubideagaz bat egiteko aukera Durangaldean

**DURANGALDEA** J. Derteano Apirilaren 25a erabakitze eskubidearen aldeko borondateak josteko eguna izango da Euskal Herri osoan, eta baita Durangaldeko herrietan ere. Atxikimenduz betetako oihalak bata besteagaz josteko, plazarik plaza batuko dira, askotariko ekitaldiek lagunduta. Egunotan oihalak kalera atera, eta borondateak jasotzen dabilta herriz herri.

Otxandion, Euskaraz Bizi Eguna dela aprobetxatuta, zapatu eguerdian kalera irtengo dira oihalekin eta askotariko materialekin. Garain ere beste ekitaldi baten harira irtengo dira kalera, domekan: Lore eta Landare Azoka egingo dute, eta postu bat ipiniko dute oihalekin zein kamisetekin.

Zornotzako dinamikako kideek postu bat jartzen dute domeka guztietan, Politena kafetegia dagoen arkupeetan. Etzi ere bertan izango dira.

Elorrioren barikuro jartzen dute mahai bat, 19:00etatik 20:30era, udaletxe inguruan.

Durangon, zapatu eguerdi guztietan, Andra Marian jartzen dute postua, eta baita eguenero ere, 19:00etatik aurrera, toki berean.

Azkenik, Berrizen, apirilaren 24ko barikuan, 19:00etatik 21:00etara, Olakueta plazan batuko dira oihalak josten hasteko.

## Txopoa altxatuta ekingo diete Berano Txikiko jaiei

Apirilaren 25ean eta 26an ospatuko dituzte jaiaiak

**MALLABIA** Jone Guenetxea Datorren asteburuan ospatuko dituzte San Jurki jaiaiak, Mallabiko Berano Txiki auzoan. Apirilaren 25ean, zapatuan, 17:00etan santuei kontuak esan eta santuak jantzi ondoren, 19:00etan, txopoa altxatuko dute. Ondoren, auzokideak afari-tara bilduko dira.

Domekarako egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean meza izango da, eta, ondoren, Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia eskainiko

du. Jarraian, Aratz Igarzabal eta Gorka Imaz bertsolariak abestuko dute, Unai Rodriguez gai-jartzaile dutela. Eguerdian, umeek jolasteko aukera izango dute. Jaien antolatzaileek salda eta txorizoa banatuko dizkiete bertaratzen direnei.

Arratsaldeko egitaraua umeen jolasekin hasiko dute, eta, 18:00etan, Tor magoaren bisita jasoko dute auzoan. Amaitzeko, Agarrera osteria egingo dute denbora mugatuan. Irabazlearentzat saria egongo da.

## Patinetan ibiltzeko ikastaroa egingo dute gaur hasita

17:30etik 18:30era elkartuko dira ikasleak frontoian

**MAÑARIA** M.O. Patinetan ibiltzeko ikastaroa antolatu dute Mañarian, 5 urte-tik gorakoentzat. Bi saiotan banatuta garatuko dute; gaur hasiko da, eta hurrengo barikuan jarraituko du. 17:30etik 18:30era bitartean elkartuko dira ikasleak pilotalekuan.

Oreka mantentzeaz gainera, beste gauza garrantzitsu batzuk ere irakatsiko dizkiete monitoreek: zelan jausi, bihurtuneak zelan hartu eta jauziak nola egin, besteak beste.

Iaz ere egin zuten ikastaroa. Parte hartzeko beharrezkoa da izena emanda egotea, eta parte-hartzaile bakoitzak bere kaskoa eta babesgarriak eraman beharko ditu.

Parte-hartzaile bakoitzak bere kaskoa eta babesgarriak eraman beharko ditu

## Gorbeia ingurua ezagutzeko lau ibilbide, apirilean eta maiatzean

**ZORNOTZA** J.D.

Ametz erakundeko euskara zerbitzuak, Ibiliaz Ezagutu ekimenaren barruan, lau ibilaldi antolatu ditu apirilerako eta maiatzerako. Ibilaldiak Gorbeia inguruan magalean izango dira, Ubide eta Zeanuri ingurutik.

Ibilaldi guztiek gidari bat izango dute: Jokin Berrio zornotzarra. Berak diseinatu ditu ibilbideak, eta bera arduratuko da azalpenak emateaz. Azalpen guztiak euskaraz izango dira, ekimenaren helburuetako bat euskararen erabilera bultzatzea delako.

Ibilaldietan, herriko gidari batek inguruari buruzko azalpenak emango ditu euskaraz

Lehen ibilbidea zapatu honetan da, eta Zumeltzatik Ubiderako tartea egingo dute oinez (14 km). Bigarren ibilbidea apirilaren 25ean egingo dute, Ubide eta Zeanuri artean (14,5 km). Maiatzaren 9an, Ubidetik Muruara joango dira (10,9 km), eta, maiatzaren 16an, Saldropotik Ubidera (14,6 km). Ibilaldien aurreko egunetara arte eman ahalko da izena. 7 euro da ibilbide bat edo bi egiten dituenarentzat, eta 12 euro hiru edo lau egiten dituenarentzat.

## Frackingaren bidezko sistemari ezetz esan dio udalbatzarrak

**ATXONDO** J.D.

Lur azpiko hidrokarburua ustiatzeko fracking sistemaren aurkako jarrera hartu du Atxondoko Udalak. Azken udalbatzarrean Fracking Ez-Durangaldea plataformak gai horren gainean sartutako mozioa onartu zuten gobernu taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen.

Mozioko puntuekin bat eginenez, Atxondo barruan hartzen duen Sustrai hidrokarburu ikerketa baimena "bertan behera geratzeko" eskatu dute, eta Atxondo *Fracking gabeko udalherri* izendatu dute.

Onartutako mozioak "frackingaren aldeko apustu zentzugabea bertan behera utzi" dezala eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta "bere eskuetan dauden urrats guztiak egin ditzala, soilik energia iturri berriztagarrietan eta energia kontsumoaren murrizketan oinarritzen den eredu baterantz joateko".

Sustrai izeneko eremua hartzen duen ikerketa baimena Petrichor Euskadi Kooperatib enpresak eta SHESA Euskadiko Hidrokarburoen Elkarteak eskatu dute. SHESA Energiaren Euskal Erakundearen barruan dago. Ikerketa baimena duen gune horrek 55.971 metro karratu ditu, eta Arrasatera, Bergarara, Elgoibarrera hedatzen da.

## Kontzertu ugari datorren asteburuan, sanmarkoetan

Eskualdeko hainbat musikari Oromiñoeko jaietan

**IURRETA** Amaia Ugalde Oromiñoeko auzokideek egitarau betea prestatu dute apirilaren 24tik 26ra, San Marko jaiak ospatzeko. Barikuan, Donien Atxa iluntzean jaso eta gero, hainbat musika talde izango dira: Izaro Andres mallabitarra hasiko da 22:00etan kantaldiagaz, eta rock kontzertuak etorriko dira ostean, Baghdag,

11 Ikusteko Jaiok eta Moonshiners taldeekin.

Zapatuan, San Marko egunez, Mozorro Eguna izango dute, eta herri bazkarian batuko dira. Iluntzean tortilla txapelketa edukiko dute, eta, afariaren aurretik eta ondoren, Luhartzegaz erronomia. Domekan, Kepa Junkeraren kontzertua egongo da, jaiak amaitzeko.

## Udako tailerretan izena emateko aukera dago hilaren 24ra arte

**IURRETA** A.U. Ekainaren 29tik uztailaren 24ra izango dira aurten Iurretako Udalak antolatutako udako tailerrak. Aurreko urteetan legez, oporretako lehenengo egunetarako aisialdi eskaintza izango da, eta ingelesez eta euskaraz egingo dituzte tailerrak. Asteon hasi dute izen-ematea, eta api-

rilaren 24ra arte batuko dituzte parte hartzeko eskariak, Ibarretxe kultur etxean.

Astebeterako, aste birako, hirurako edo lau asterako eman daiteke izena tailerretan, eta bost talde egongo dira, adinaren arabera banatuta. 3 eta 14 urte arteko ume eta gaztetxoentzako tailerrak izango dira.

Talde guztietan elebitan egingo dituzte ekintzak, euskaraz eta ingelesez, eta gaztetxoenen taldean -3 eta 4 urte artekoak- handiagoa izango da ingelesaren presentzia: ekintzen %70 ingelesez egingo dituzte.

## Argazki zaharren erakusketa ipini dute Montoiko zubian

**IURRETA** M.O./A.U. Iurretako desanexioaren 25. urteurrenaren eta Gerediaga Elkartearen 50. urtemugaren harira, argazki erakusketa berezia ipini dute elkarteak eta udalak elkarlanean, Montoiko zubian. *Montoi, iraganerako zubia* erakusketan, tamaina handian inprimatutako 50 argazki eskegi dituzte.

Txelu Angoitia argazkilariak egin du argazkien aukeraketa, eta garai desberdinetako irudiak aukeratu ditu: "500-600 argazki izan ditut esku artean, eta aukeraketa egitea zaila izan da, baina,aldi berean, polita". Angoitia ustez, argazki berezietakoa 1919an hegazkin batek nahitaezko lurreratzea egin zueneko da.

San Migel jaietarako 400 argazkigaz osatutako katalogoa argitaratu nahi dute. German Zorraquin, Ricardo Doliwa, Gerediaga Elkartea, Foto Sol, Pablo Garitaonandia, Miguel Angel Astiz, Jose Areitio eta Joseba Agirre dira argazkien egile edo jabeetako batzuk.



Jende ugari interesa piztu dute erakusketako argazkiek.



Goiurian nahitaezko lurreratzea egin zuen hegazkinaren argazkia (1919).

# ATE IREKIAK

Apirilaren 22an 18:00etan

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA,  
JOSE MARIA ARGUMENTIARRIETA S. COOP

### Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiatz eta mantentzeaz arduratzen dira

### Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta pieza fabrikatzen dituzte

### Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91



Hauteskundeak

## Dani Maeztu da EH Bilduren Durangoko alkategaia

**EH BILDU** Markel Onaindia EH Bilduk Durangoko, Abadiño, Zaldibarko, Elorrioko, Atxondoko eta Iurretako hautagaien zerrendak aurkeztu ditu azken aste honetan. Zapatuan, Durangoko Plateruenean egindako batzarrean, Dani Maeztu aukeratu zuten alkategai.

Abadiñon Mikel Urrutia izango da alkategaia, eta Iurretan Amaia Zarrabeitia. Bestalde, Zaldibarren Arantza Biegorri alkateak errepikatuko du, eta Elorrion Idoia Buruaga izango da berriro zerrendaburu. Atxondon Dabid Cobos alkate ohia aurkeztuko da.



Abadiñon Mikel Urrutia izango da alkategaia.



Elorri, Arriolan egin zuten ekitaldia.

## Zerrenda "gazte eta plurala" osatu du Abadiñoeko EAJK

EAJK Eneko Etxebarria mantenduko du hautagai

**EAJ** I.E.

2011-2015 agintaldian jeltzaleen udaleko bozeroale izan den Eneko Etxebarria mantenduko du Abadiñoeko EAJK maiatzeko hauteskundeetarako alkategai. EAJK prentsa ohar batean azpimarratu du "zerrendaren

ezaugarriarik nagusienak gaztetasuna eta pluraltasuna" direla, eta Abadiñoaren alde lan egiteko ilusio eta gogo handiz dagoela lantaldea. Gainera, datozen egunetan "abadiñar askoren ekarpenekin egindako programa" aurkeztuko du.



Batzarren ostean, Durangoko EH Bilduk eginiko argazkia.



Zaldibarko zerrenda osatu dutenen argazkia.



Iurretako hautagaien argazkia, pilotalekuan.



Datozen egunetan aurkeztuko du Abadiñoeko EAJK hauteskunde programa.

SEI HANKAKO MAHAIA

**JUAN JOSE GASTANAZATORRE**

PP



**Maiatzaren 1a**

Zer ospatzen dugu maiatzaren 1ean, "langilearen egunean"? 1886. urtean, industria iraultza gertatu zen AEBetan. Lanaren Federazio Amerikarrak zortzi orduko laneguna aldarrikatu zuen, bere filosofia bete zedin: "Zortzi ordu lanerako, zortzi ordu lotarako eta zortzi ordu etxerako". Izan ere, sasoi horretan, langileak egunean hemezortzi orduz lan egitera behartu zitzaizkien nagusiek. Grebara joko zutela mehatxu eginda, behargin askok euren helburua lortu zuten, hau da, lanaldia murriztea. Hala ere, helburua lortu ez zutenek ez zuten beste aukerarik izan, aldarrikapen gisa, greba batera deitzea baizik.

Horrela, 1886ko maiatzaren 1ean ehunka mila langilek greba historiko bati ekin zioten. Mobilizazioaren erdigunea Chicago izan zen, bertako langileen baldintzak beste hiri batzuetako beharginenak baino askoz txarragoak zirelako.

Manifestazioek hurrengo egunetan jarraitu zuten, polizien eta langileen arteko istilu bortitzekin: alde bietako hainbat kide hil ziren. Istilu jarrai horien ostean, bost langile atxilotu zituzten, eta urkara kondenatuak izan ziren. Hildako horiek manifestazio gogorrek eragindako gainontzeko hildakoei gehitu zitzaizkien.

Zortzi orduko laneguna lortzearen alde borrokatu izana euren biziaz ordaindu zuten langile askok. Hildakoen kopuru zehatza zein den ezin da jakin, baina horiei gehitu behar zaizkie gertakari haiek eragindako milaka kaleratzeak, auzipetuak eta urkara zigortutako langileak. Beraz, ikusi dugu Langile Mugimendu modernoaren jatorria, eta gaur egun era baketsuan igarotzen den egun bat bada ere, hasieran aldarrikapen odoltsu eta iraultzaile bat izan zela.

*\*Erredakzioan itzulia*

**Chimeneas**  
Cerámicas MACOBER  
Santitas

**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

**DIBA**

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA



# Euskararen alde egiteko egun osoko jaia bihar

Euskal Herrian Euskarazek Euskaraz Bizi Eguna antolatu du herriko elkarte eta eragileek lagunduta



Otxandioko herritarrekin ateratako argazkia.

**OTXANDIO** Joseba Derteano Bihar euskaraz bizi nahi duen herriaren erakusleio bihurtuko da Otxandio. Euskal Herrian Euskaraz elkarteak Euskaraz Bizi Eguna prestatu du herriko eragile eta elkarteekin batera. Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera igarotzeko mezua zabaldu gura dute aurtengo ekitaldian.

Txistulariak, kale animazioa, artisautza azoka, futbol partiduak, Luhartz, Gozategi eta Governors taldeen zuzenekoak... Egun osoko jaia izango da (egitarau osoa *Agenda* atalean). Eta hori guztia antolatzeke bidea auzolana izan da. "Gure filosofia herria jaien parte izatea da, eta herritarren inplikazioa bilatzen saiatzen gara", dio Otxandion bizi den Mikel Ortiz de Zarate EHEko kideak.

Egun osoko egitaraua otxandiarrei esker antolatu ahal izan dute, eta azpiegiturak muntatzeko laguntza ere herrian jaso dute: "Oso erantzun ona jaso dugu. Jende asko agertu zaigu muntaiagaz laguntzeko prest; herritarrak gugana etortzen dira, eta 'Zer egin dezakegu?' galdetzen digute".

Eguraldi lainotsua iragarrita dago, eta euria egin dezake une batzuetan. Edozelan ere, 30 metro luze den karpa bat prest dute plazan, ekitaldiak hartzeko. Eguraldiaren arabera, artisautza azoka Andikoa plazatik pasealekura tokialdatu daiteke.

Eguraldia edozein dela ere, herri bazkaria arrakastatsua izango da. 400 txartelak ia saldu dituzte, eta, eskaera handia denez, baliteke bazkaritarako txartel kopurua handitzea.

# Herri ortuak maiatzerako prest egotea espero dute

Ortuen erabilerarako ordenantza onartu dute

**BERRIZ** Itsaso Esteban Aho batez onartu du udalbatzak herri ortuen erabilera arautuko duen ordenantza. Ordenantzak zehazten duenez, erabiltzaileek adinez nagusi izan beharko dute, Berrizen gutxienez duela hiru urtetik errolatuta egon beharko dute eta lan horietarako gaitasuna dutela dioen medikuaren ziurtagiria eduki beharko dute. Ortu baten esleipena jasotzeko, lehentasuna izango dute gizarte talde jakin batzuek: langabetuentzat eta jubilatuentzat gorde dituzte, esaterako, hamabina lursail, eta erabiltzaileen %30 emakumeak

izan beharko direla ere zehazten du ordenantzak.

Guztira, 45 partzela atonduko dituzte momentuz, 55.000 euroko aurrekontuagaz. Aldagelak eta erremintak gordetzeko lekua ere egokituko dute, eta prest dago ortuak ureztatzeko erabiliko duten euri ura gordetzeko biltegia ere. Ortu bat gura dutenek aste bi barru izena eman ahal izatea espero du udalak, gero esleipenak egin ahal izateko.

Herri ortu horiek lantzeko nekazaritza ekologikoa izango da oinarria, eta, astean birritan, begirale baten laguntza eta gidaritza izango dute erabiltzaileek.

# Belaunaldiarteko lehen irteera, apirilaren 26an

**BERRIZ** Amaia Ugalde Ume, gazte zein nagusi ibilbide bat egiteko elkartea eta belaunaldien arteko harremanak indartzea izaten da Berrizen urtero egiten dituzten irteeren helburua. Aurten ere bost irteera antolatu dituzte, eta lehenengoa apirilaren 26an egingo dute. Elorrioko San Agustin auzora egingo dute lau orduko ibilbidea, eta, ibiltzeaz gainera, inguruak ezagutzeko aukera ere izango dute; izan ere, Argiñetako nekropolisean azalpenak entzun go dituzte.

Elorriora oinez joango dira, eta bueltatu autobusez. Udaltxean edo kiroldegian eman daiteke izena, apirilaren 23a baino lehenago.

Azarora bitartean, beste lau irteera egingo dituzte. Maiatzaren 17an, Muntzaratz aldera egingo dute irteera. Ekainerako, Gorbeia mendia igotzeko hitzordua prestatu dute. Urrian, Eituako San Fausto ermitara joango dira, bertako jaiak direla aprobetxatuta. Eta, azaroan, Patalako zentral elektrikoa zaharra bisitatuko dute, Sarrian.

> DURANGALDEA ASTEON

## 119 urteko zigorra Itziar Alberdiri

**DURANGO** > Itziar Alberdik 1991. urtean Justizia Ministerioaren kontra egindako atentatua gauzatzeko "beharrezko baliabideak" eman zituela uste du epaileak. Hiru polizia hil ziren ekintza horren ondorioz. 22 urte eman ditu Alberdik ihes eginda. Mexikon atxilotu zuten iaz, eta, ondoren, Espainiara estraditatu zuten.

## Haurreskoletako lana erakutsiko dute

**ABADIÑO** > Traña-Matienako eta Zelaiaetako Haurreskolan egiten duten lana bertatik bertara ikusteko aukera izango dute guraso eta senideek, zapatuan. Instalazioak erakutsiko dizkiete 10:30etik 13:30era Haurreskola bi horietara bertaratzen direnei, eta umekin egiten dituzten ekintzen berri emango diete.

## Jan Alai lehiaketan izena ematea

**ZORNOTZA** > Apirilaren 30era orduko izena eman beharko dute Zornotzan Jan Alai pintxo lehiaketan parte hartu gura duten ostalariek. Ekainaren 3tik 7ra egingo dute lehiaketa Zornotzan. Pintxo "berritzaile" eta pintxo "herrikoirik" onenek 1.000 euroko sari bana jasoko dute.

**Iritzia**

## Enbido handira!

Eskubaloi jokalarien antzera, guk ere pilota gure eskuetan dugu. Inoren atean gola sartzearekin tematu baino, partidua irabazi nahi dugu. Lasterkariaren moduan, guk ere helmuga argi, abiapuntuan indarrak neurtu, eta azken esprintean barrukoak hustu behar ditugu. Apirilaren 25ekoak izango da gure maratoni honen abiapuntu eta helmuga. Mugarria. Euskararen alde izerdi patsetan aritzen garenon eta aritzeko prest gaudenon joko-zelaia izango da Anaitasuna.

Mendizaletasuna da, akaso, euskaldunon kirolrik kuttunena. Guztio, ez soilik kirolari finenak, baita alperrenak ere, guztio helduko gara puntara, edo ez gara iritsiko. Badira, kanpora atera eta

nekatu beharrean, mahai baten bueltan musean aritu nahiago dutenak. Haiak ere behar ditugu. Partida hau ere irabaziko dugulako. 31 dugu eskutik. Tranparik gabe, besteenak baitira tranpak. Duena-rekin seguru dagoenaren ausardiaz, enbidoa jotzeko ordua da, enbidoa handira!

Horregatik "Anahitasuna". Handia delako, gure handitasuna erakusleio. Izena eta izana, biak ditu proposak. Anaitik bezain beste dugulako nahitik. Bagarela gai, nahi dugula, baina ez dela ametsa, gure nahia dela, kantuak dioenez, eta nahi hori gauzatuko dugula. Gauzatu behar dugula. Anahitasunetik abiatuta. Orain enbidoa joko dugula andira, eta aurki hordagoa etorriko dela!

## Alkartasunezko eta maitasunezko sarea

Pasa dan asteburuan Valentziaraino joan ginen euskal preso politikoen senideak eta lagunak Picassenteko kartzelara eroatera.

Bidaia horretan, beste batzuen artean, Loiolako Fernandi izeneko amatxo maitagarria ezagutu genduan. Fernandez indarra eta maitasuna guk ezagutzen doguzen eta Euskal Herrian asko dauzen amatxo zoragarrien isla baino ez da. Berak gogoratu euskun moduen, sakabanaketaren aurrean "bat eginda egon behar dogu". Bidaia osoa emon eban guri eskerrak emoten, bera haraino eroatearren. Guk esan geuntsan presoaren esker onak senideentzat direla, beti euren ondoan egotearren; senideen esker onak

gidarientzat direla, sakabanaketaren zama apur bat arintzen laguntzearen; eta gidarien esker onak presoentzat direla.

Argi daukaguna da esker onez, alkartasunez eta maitasunez jositako sare hau ez dauela ezelako lege edo politika ankerrek deuseztatuko. Bakotxak sare hau sendotzeko gure esparrua topatu ahal dogu, baina gidari modura senide eta lagunei laguntzea oso esperientzia aberasgarria dala uste dogunez, jendea horretara animatzen dogu.

Horregaitik, danak etxean bueltan euki arte, sare trinko hau gure maitasun eta indar guztiagaz josten jarraitu daigun.

Euskal preso eta iheslariak etxera!

Urko Aristi  
Tokikom-eko lehendakaria

Gorka Zuazua Albarado eta Irantzu Zuazua Albarado (gidariak)



astekaria@anboto.org  
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).

## **Berbaz**

**Jokoba Errekondo** | Agronomoa eta paisajista | Usurbil (Gipuzkoa), 1961

# “Aisialdiko baratzeak oso inportanteak dira, eta udal gehiagok sortu beharko lituzkete”

Jakoba Errekondok baratzearen gaineko herritarren galderak erantzungo ditu domekan, 11:00etan, Garaiko kultur etxean



Argazki-press

**> BERBAZ** Joseba Derteano Euskadi Irratiko ‘Landaberrri’ saioan egiten duen antzera, baratzeei, landareei eta, oro har, nekazaritzari lotutako herritarren dudak eta kezak argitzen saiatuko da Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista. Horretaz gainera, solasaldi horretan ‘Bizi baratzea’ izeneko liburua ere aurkeztuko du lehenengoz jendaurrean.

**Zer jasotzen du asteon inprimategitik irten berri den liburua?**  
Argia astekarian astero idazten dut artikulu bat, eta 20 urte joan dira hasi nintzenetik. Hori dela-eta, baratzearen inguruko liburua bat idazteko eskatu zidaten. Batetik, oinarritzko informazioa jaso dut: baratzea non jarri; luraren, uraren eta argiaren garrantzia zenbatekoa den; nola eta noiz erein eta landatu; ongari naturala zelan lortu... Baratzean sortzen diren arazoei buruzko argibideak ere badaude: esaterako, gaitz eta izurritei aurre egiteko modu naturalak zeintzuk diren. 36 barazkiren eta hamabi belarren inguruko fitxak ere jasotzen ditu askotariko informazioagaz.

Bestetik, lehendik baratzearen mundua ezagutzen duenarentzat aholkuak eta trikimailuak ere irakurri daitezke.

**Topaketaren zatirik handiena, hitzaldi erara barik, herritarren galderei erantzuteko erabiliko duzu.**

Jendearen zalantzak argitzen saiatzea askoz egokiagoa dela uste dut. Gainera, hitzaldi luze batera baino jende gehiago etortzen da galdera-erantzunetan oinarritutako saio batera.

**laz, Arrasateko solasaldi batean, lur publikorik ia ez dagoela adierazi zenuen, eta baita horren gaineko kezka plazaratu ere. Hain larria dela uste duzu?**

Arabian eta Nafarroan ez, baina Bizkaian eta Gipuzkoan oso arazo larria da. Administrazio publikoek dute arazorik larrienetakoa. Etorkizunean kalitatezko bizimodua eta lanpostuak nahi baditugu, gure herrietan lurra beharko da, eta lur horri lotutako proiektuak garatu beharko dira; adibidez, nekazaritzaren, turismoaren eta zerbitzuen gainekoak.

**Nekazariak pribatizazioaren esklabo bihurtzen direla aipatu zenuen.**

Bai, noski. Euskal Herrian guk jaten dugunaren %5 ekoizten dugu. Gainerakoa kanpotik dator: Marokora, Perura, Txinara edo Afrikara joanez gero jaten ditugun elikagaiak nola ekoizten dituzten ikustera, seguru nago negar egiteko arrazoiak aurkituko genituzkeela. Gaur egun, etorkizuna lurrari lotuta dago. Etorkizuneko enpresa garrantzitsuenak elikagaiari lotutakoak izango dira, eta ez, esaterako, autoak edo hegazkinak egiten dituzten enpresak; horko langileek ere jan behar dutelako. Txina eta India lurak eurenganatan dabilta Afrikan eta Hego Amerikan. Gure haziak erosten eta patentatzen dabilta. Transgenikoak sortzen dabilta, baina ez goseari aurre egitera zuzenduta, negoziara bideratuta baizik. Dirua daukana horretan inbertitzen dabil; hori da etorkizuneko inbertsiorik potenteena. Eta etorkizuneko gerrak gosearen inguruan egingo dituzte. Arma asko izanda ere, jatekorik eta uririk ez baduzu...

“**Geure buruari galdetu behar diogu zertarako behar ditugun basoak**”

**Azken urteetan ortu ludikoen aldeko apustua egiten dabilta udal asko. Zer deritzozu?**

Aisialdiko baratzeak sortzeak adierazten du jendeak baduela horretarako gogoia, eta, aldi berean, jaten dugunaren inguruko kezka ere badagoela. Aisialdiko baratzeak oso-oso inportanteak direla uste dut, eta udal gehiagok sortu beharko lituzkete. Iruditzen zait hori dela oinarria, etorkizunean, gure ondorengo belaunaldiek lurragaz lotura izaten jarraitu dezaten, eta jakin dezaten gure bizitzaren kalitatea hor dagoela. Horrek bertako produktuen sustapena ekarriko du, eta kalitatezko nekazaritza egiten duten inguruko baserri-tarren lana benetan baloratzea

ere bai. Nire ustez, administrazio publikotik hori guztia sustatzea nahitaezkoa izan beharko litzateke.

**Euskal Herriko gune asko pinuz eta eukalipto beteta ikusteak zer gogoeta eragiten dizu?**


Bururik gabe jokatzeko gabiltzala. Basoa beste alor garrantzitsu bat da. Basoa ondo kudeatzen jakin izan dugunean, XVI. eta XVII. mendeetan gutxi gorabehera, Euskal Herria munduko potentzia handietako bat izan da; basoa zen gure energia, basoetan diseinatzen genituen gure galeoiak arrantzara, merkataritzara zein gerrara bideratzeko. Azken mendean, aldiz, basoak paperaren industriaren mesederako bakar-bakarrik landatu, zaindu eta diseinatu dira. Hori gure kudeaketaren arazo bat da, eta mahaigaineratu beharreko gai bat da. Geure buruari galde-tu behar diogu zertarako nahi ditugun basoak.

**Paisajista ere bazara; ingurua arteagaz lotzeko ahalegin horrek zer eskaintzen dizu?**

Nire espezialitatea paisaia kulturala da. Guk ikusten dugun paisaia guztia kulturala da; Euskal Herrian ez dago metro karratu bat bera ere guk sortua ez dena edo naturala dena. Hor dago gure arterik inportanteena. Orain dela 10.000, 1.000 edo 500 urte egiten zituzten gauzak hor daude, paisaia, eta horiek irakurtzen jakin behar dugu. Paisaia horretan dago gure ondare guztia, izan garena. Hori itzelezko akuilua da niretzat.

**Zein da zure iritzia genetikoki eraldatutako hazien gainean?**

Gauza bat da zientziaren ahalmena transgenikoak sortzeko, eta beste bat da transgeniko horiek zertarako sortzen ditugun. Demagun hainbat pertsona artatxikia janean bizi direla, baina ezin dutela ekoizti gosea kentzeko beste; bada, egin dezagun transgeniko bat artatxiki zoro horien ekoizpena laukoizteko. Baina, jakina, hori ez zaie interesatzen, burujabetza ematen duelako. Hori da gerra nagusia, burujabetza eta burugabetzearen artekoa, eta burugabe nahi gaituzte.



LEHIOR ELORRIAGA

# Lehiorkomtzak

banboto



**MENDEBAL-  
DEKO KOSTA**

## NEURRIRA EGINDAKO EZTEI-BIDAIAK




Txinurrisolo, 6 behea - 48220 Matiena (Abadiño)  
Tel.: 944 657 577 - Mug.: 639 346 506  
[www.bagoaz.com](http://www.bagoaz.com)



**SAN ANDRES  
UHARTEA**

# ezkontzak

Bikote askok momenturen batean planteatzen duten galdera honako hau izaten da: ezkondu ala ez ezkondu? Hortxe dago galdera. Ezkontzea erabakitzen dutenen artean, hainbatentzat tramite bat besterik ez da egun hori. Beste askok, aldiz, ezkontza ospakizun berezi bat izatea gura izaten dute. Lagunekin eta familiagaz egun berezi bat pasatzeko aitzakia izaten da. Ezkontza tradizioetatik ospakizun bereziagoetara, hurrengo orrialdeetan hainbat aholku eta aukera eskaintzen dizkizugu egun hori antolatzeko.: loreak, arropak, bitxiak, jatetxeak, bidaiak...



## Loreak



**Lore sorta bereziak**  
Lore mota ugari dituzten sortek hornitzen dute ezkontzekotan den bikotea. Hainbat lore mota zein mota bakarra aukeratu daitezke sorta bakoitzean.

*Loreek protagonismo berezia izaten dute ezkontzetan. Ezkontza garatuko den lekua apaintzeaz gainera, ezkontideentzat sinbolo berezia izaten da. Arroza tradizionalak zein beste lore mota batzuk aukeratu daitezke.*



# Kimu

Loradenda eta Opariak

Iturriza kalea, 45 · 48240 Berriz · 946 824 228



Eskaintza: %10eko deskontua iragarki hau erakutsiz gero.



# SALEGI

Galtzada kalea, 13  
20829 Itziar (Deba) Gipuzkoa

Tel.: 943 199 004  
info@salegi.net

[www.salegi.net](http://www.salegi.net)




# Tratamenduak

*Tratamendu estetikoak edozein momentutarako izan daitezke egokiak, nork bere burua hobeto ikusteko. Ezkontza bat baduzu, esate baterako, zergatik ez jo tratamendu horietako batera?*

## *Garbiketa sakona*

Azal mota bakoitzak bere tratamendu zehatzak behar izaten baditu ere, denei datorkie ondo garbiketa sakon bat egitea lantzean behin. Makillajea egunero erabiltzen dutenek, batez ere, urtean behin tratamendu hau egitea gomendagarria izaten da. Gainera, tratamendu estetikoak ez dira emakumeentzat bakarrik. Estereotipo zaharkituak atzean utzi, eta gizonak ere geroago eta gehiago erabiltzen dituzte tratamendu hauek. Azala garbitzea eta gorputzeko ileak laser bidez kentzea dira gizonen artean harrera onena duten tratamenduak.



## *Makillajea neurrian*

Makillajea egoki emateak erabat aldatzen du aurpegiko azalaren distira. Horregatik, garrantzitsua da ospakizunen bat duten pertsonak zer makillaje gura duten ondo aukeratzea. Egunero makillatzen direnentzat, berriz, kolore biziagoak erabiltzeko aukera izan daiteke. Baina makillajerik erabiltzen ez dutenei tonu naturalak erabiltzea gomendatzen zaie, mozorroturik ez daitezen sentitu. Bekainak egoki markatuta izateak ere aurpegia- ren espresioa erabat aldatzen du. Eguna heldu aurretik probaren bat egitea aholkatzen dute adituek.

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak  
eta aholkularitza

Ezkongaienezako eta  
gonbidatuentzako bonuak  
**%25**erainoko  
deskontua

*Prest egon zaitez hain berezia  
den egun hau heltzen denerako*

Aurpegiko tratamendua  
Manikura eta pedikura  
Gorputzeko esfoliazioa (peelinga)  
Bekainen diseinua  
Makillaje proba  
**Berria!** Betile-luzapenak

Goienkalea, 16-1. eak. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



facebook.com/anacamarero



# Virginia Ansorena

*Ezkontza egunerako kalitatezko aholkularitza estetiko eskaintzen du Virginia Ansorenak, Durangon duen zentroan, bai ezkongaientzat, bai gonbidatuentzat*



## *Azal distiratsua*

Ezkonberri baten zaintza integrala proposatzen du Virginia Ansorenak bere estetika zentroan. Ezkontza egunera orduko denbora nahikoa izanez gero, bakoitzaren beharretara egokitutako tratamenduak aholkatzen ditu. Aurpegi garbiketa sakon bat egiteaz gainera, eskotearen eta eskuen hidratazioa, azazkalen berreraikitzea, pedikura, makillajea eta beste hainbat arlo lantzen ditu Ansorenak.

Hainbat irtenbide daude ezkontza egunerako ezkongaiak zein ingurukoek aurpegi distiratsu bat izan dezaten. Zimurrek, akne arrastoek eta eguzkiak sortutako orbanek badute konponbidea esku onetan jarriz gero: IPL laserra, peeling kimikoak, orkidea zuria, tratamendu naturalak...

Ansorenak mediku estetiko batez elkarlanean egiten du behar, kalitatezko zerbitzua eskaintzea duelako helburu. Gainera, bere zentroan ez du kremarik saltzen. Aholkatutako tratamenduetarako produktu guztiak farmazian erosten dira. Arazo estetikoari irtenbidea bilatzea eta bezeroa gustura geratzea denez helburua, prezio oso lehiakorrak eta zatika ordaintzeko aukera eskaintzen ditu.

Ezkontza egunerako aurpegiaren garbiketa sakona, makillajea, azazkalen konponketa eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, ezkongaiak eta gonbidatuek distira egin dezaten. Denboragaz hasiz gero, faseka garatu daiteke prozesua.



## *Ezkongaiaren zaintza integrala*

Besteak beste, eguzkiak sortutako orbanak, zimurrak eta akne arrastoak hainbat tratamenduren bidez konpondu edo arindu daitezke: laserra, mikrodermoabrasioa, diamante punta, terapia fotodinamikoak...



## *Inperfekzioei irtenbidea ematen*

**Laser bidezko depilazioa IPL**

**Diodo laserra**

**Zera bidezko depilazioa**

**Bekainen diseinu pertsonalizatua**

**Aurpegiko tratamenduak**

**Aurpegiaren gaztetzea IPL**

**Orbanak, zimurrak eta 'couperosia' IPL**

**Akne IPL + peeling kosmetikoa**

**Aurpegiaren garbitasuna**

**Gorputzeko tratamenduak**

**Zirkulazio-masajea**

**Drainatze linfatikoa**

**Zelulitisa**

**Ultrasoinuak**

**Presoterapia**

**Peelinga eta gorputzaren hidratazioa**

**Ayuruédico (masaje orekatzailea)**

**Makillajeak**

**Oinaren estetika**

**Manikura ia iraunkorra**

**Pedikura ia iraunkorra**

**Betileen tinte eta permanentea**

## **Zure ezkontzarako prestatu zaitez!**

Apirilaren 27a, atek irekitzeko eguna Ezkongai eta gonbidatuei makillaje proba **doan** egiteko aukera eskaintzen die Virginia Ansorenak.

Hitzordua aurrez hartu behar da.

- Sanagustinalde kalea, 1 -  
48200 Durango  
Tel.: 946 202 978



# Orrazkerak



*Ilea jaso ala solte utzi? Horixe izaten da ezkongai askok izaten duten zalantza. Onena ahalik eta proba gehien egitea da, norberaren gustuko orrazkera aurkitu arte.*

## *Ilea osasuntsu*

Orrazkera aukeratu aurretik, ilea egoera onean eta osasuntsu egotea komeni da. Beraz, aditu askok aholkatzen dute keratinazko tratamenduak egitea ezkontza aurretik. Ilea prest dagoenean, orrazkera aukeratzeko momentua da. Ezkongai askok ilea luze utzi gura izaten dute, aukeraketa egiterakoan joko gehiago emateko. Hala ere, ile laburragaz orrazkera ugari egin daitezke.





## KENAI

ileapaindegia - peluqueria




[www.kenaizentrua.com](http://www.kenaizentrua.com)

-   kenai\_zentroa -

Dantzari auzunea, 6 behea 5 - 48215 Iurreta - Tel.: 946 570 970 - kenai@kenaizentrua.com

## Carmen Sarabia

## Ainhoa Sarobe

ILE APAINDEGIA / EDERTASUNA

Gazteen moda

Emaztegaien orrazkera

Balayage metxak

Makillajea

Manikura erdi iraunkorra

Laser bidezko depilazioa

**Martitzen eta eguaztenetan tiket gaztea**

Juan Mari Altuna kalea, 4 | 48200 Durango Bizkaia | Tel.: 946 201 689




# Burukoak

*Hainbat aukera izaten dira ilean apaingarriren bat jartzeko: loreak zein neurrira egindako motiboak dira horietako batzuk.*



## *Pamela eta burukoa*

Orrazkera aukeratzeaz gainera, pamelek zein burukoek ezkontza batera doan gonbidatuari ukitu berezia ematen diote. Soinekoa erakutsita, neurrira egindako apaingarria izan daiteke, edo eginda dagoen diseinu bat soinekoagaz ondo badoa, aukera bikaina izaten da hori ere.



**bare bare**  
ileapaindegia

Artakalea, 33 beheak,  
48200 Durango  
Tel.: 945 462 543

martitzenetik barikua, 09:30etik 20:00etara  
zapatasten 09:00etatik 14:00etara  
\*zerbitzu eta arreta pertsonalizatuak

**EZKONTZA ESKAINTZA**

**Frogak:**  
2 orrazkera  
Betile luzapena  
Makillajea

**Egunean:**  
Orrazkera  
Makillajea

**130€**

**NUKLEO**  
ileapaindegia  
946 582 996  
Elorrio

*Ezkontzen inguruan aditurik bada Durangaldean, Rafa Iriondo da hori. Luhartz taldeko abeslaria izateaz gainera, Errai enpresaren bidez ospakizunak antolatzen ditu.*

*"Argi dut ezkontza jai bat dela eta nire lana ezkontzen direnei erraztasunak ematea dela"*



Ezkontza bereziak antolatzen dabil Rafa Iriondo azken hogeitun urteotan. Pentsaezinak diren lekuetan prestatu ditu banke te zein ospakizunak. Ezkontideekin batu, eta zer egin gura duten galdetzen die. Zelan antolatu bere ardura da.

**Zenbat ezkontza antolatu dituzu dagoeneko?**

Modu batera edo bestera mila ezkontzatan parte hartu izan dit. Urtean zazpi inguru antolatzen ditut.

**Ezkontzekotan diren bikote guztiak gura dute zer edo zer desberdina?**

Bai, baina azkenenean ez dute desberdina den ezer egiten. Puntu batean, gainera, denak dira berdinak. Aukera batzuk moda kontua izaten dira. Batzuek jate txer bat aukeratzen dute lehengusuak eta lagunak bertan ezkondu zirelako. Gauza merke bat izango balitz, ados egongo nintzateke. Baina nire galdera zera da: diru bat dugu, eta zer egin dezakegu horregaz? Ez dudana onartzen da gonbidatuko 150-200 euro ordaintzea eta 21:00etarako Goienkalean egotea, hiru-lau ezkontzagaz nahastuta, jatetxetik bota gaituztelako.

**Ezkontza bat antolatzen duzunean zer hartzen duzue kontuan?**

Ezkontzen direnak ordu eta erdi berandu doaz alde guztietara, eta horrela ezin dute egun horretaz gozatu. Argazkiak geroko uzten dituzte beti. 20:00etan konfaturak dira ez direla inogaz egon. Horrek nire bezeroak badira, nik zaindu egin behar ditut. Hogeitun urte hauetan lortu dudana bikote guztiak nire lagun egitea da. Era berean, azken orduan iritetan diren hainbat ezus-



#### Bezeroei harrera

ERRAI

Durangoko Plateuren plaza, 1. solairua  
6. bulegoa  
Tel.: 656 786 020

[www.errai.com](http://www.errai.com)

teko ere kontuan hartzen ditut. Egile eta Editoreen Elkarteak, pastela aldatzea, doako edana... Dena airean gelditzen denean, bikote askok sorpresa hartzen dute azken momentuan. Nik, aldiz, sustoa hasieran ematen diet. Horrek ez du esan nahi garestia izan behar duenik. Sagordotegiko menuagaz ere antolatu ditut ezkontzak. Argi dut hau jai bat dela eta nire ardura ezkontideei erraztasunak ematea dela.

**Gogoratzen duzue antolatu zenuen lehenengo ezkontza?**

Leioatik deitu zidaten. Alaba Londresko baletean zebilen, eta han bizi zen. Amak esan zidan alabak han ezkondu gura zuela, hango ezkontzak politagoak zirela iruditzen zitzaizkion. Familiak Igorren baserri bat zuen, eta amak eta biok proposatu genion karpa bat jarri, eta bertan ezkontzea. Sasoi hartan ez zegoen materialik horretarako, eta platerak Bordeletik ekarri genituen. Amak, aitak eta lagunak 3.000 plater garbitu zituzten, eta itzuli egin genituen. Horrela hasi nintzen lanean.

**Eta ezkontzarik bereziena?**

Zaila da baten bat nabarmentzea,

baina agian 1900. urtean girotutako ezkontza bat esango nuke. Lagunak eta bikoteak garaiko arrokekin jantzita joan ziren. Amerikarren ezkontzak ere antolatu ditugu bai hemen, bai han. Han errazagoa da, jende gehiago doalako eta jai egitera doazelako. Hemen asko galtzen da formalidadean.

**Elorrioren euskal ezkontza bat ere antolatu zenuen.**

Argiñetan ezkondu ziren, eta gonbidatuak igotzeko karroza antzeko bat prestatu genuen.

**Zer gomendatuko zenioke laister ezkontzeko asmoa duen bikote bati?**

Zer egin gura duten pentsatu dezatela esango nieke, aurretik ikusi dutena alde batera utzita. Eurengan pentsatu dezatela. Gaur egun, askotan baseliza batean ezkontzen dira, etxekoekin, eta gero kartara bazkaltzera joaten dira jatetxe on batera. Hurrengo zapatuan lagunekin lokal bat hartu, eta jai bat egin daiteke. Hogeitun urte daramatzat honetan. 80 eurogaz kartara oso ondo bazkaldu dezakegu. Ezkontzako menuan, berriz, 120 euro ordaindu, eta baliteke txarrago jatea.

# Jan- tziak



*Ezkontza informalek arropa informalak eskatzen dituzte. Baina badaude jai jantziekin joatekoak diren ezkontza dotoreagoak ere. Zelan aukeratu ospakizun bakoitzean zer jantzi?*

## *Dotorezia*

Jai jantziekin ezkontza batera joaterakoan, soinekoa izaten da aukeratuena. Luzea zein laburra izan daiteke. Pastel koloreak eta gorria izaten dira erabilienak. Horri oinetakoak eta poltsa gehitzea falta da, eta orduan bai, konbinazio guztia gertu dugu egun berezi hori behar den moduan ospatzeko.



## *Trajea eta prakak*

Nork esan du emakume guztiek soinekoagaz jantzita joan behar dutenik ospakizunetara? Prakekin ere modan egotea posible da, zelan ez. Jaka edo *amerikana* bategaz uztartuta, apainapain joan zaitezke edozein ezkontza zein ospakizunetara.



## *Sport soinekoa*

Geroago eta ezkontza gehiagotara gonbidatuei ohiko jantziekin joateko eskatzen zaie. Momentu horietarako zer edo zer erosi gura izanez gero, soineko edo gona luze bat aukera bikaina izan daiteke. Udazkenean edo neguan botekin uztartu daiteke, eta udaberrian takoidun sandaliekkin.



## *Takoia nonahi*

Animalien motiboak gogora ekartzen dizkiguten zapatek *look* bati beste ukitu bat ematen diote: pitoia zein zebra itxurakoa izan, takoia guztietan agertzen da.



Donde el  
silencio se oye

Ezkonberrien desioetara eta beharretara egokitutako ezkontza pertsonalizatuak.

30 urtetik gorako esperientzia dugu mota guztietako ezkontzak antolatzen.

San Juan auzoa, 38 | - Axpe - ATXONDO | 48291 BIZKAIA | Tel.: 946 820 833  
reservas@mendigoihoa.com | [www.mendigoihoa.com](http://www.mendigoihoa.com)

# Jaione Amantegi

*Jaione Amantegi estudioak zerbitzu osoa eskaintzen die ezkonberriei. Hasteko, jantziaren analisia egiten du, eta, horren arabera, orrazkera eta makillaje motak zehazten ditu. Era berean, visagismoan aditua denez, orrazkera mota desberdinak zehazten ditu, eta makillaje koloreak probatzeko orduan oso zehatza izaten da. Edertasun zerbitzu guztiak eskaintzeaz gainera, argazkilaritza zerbitzua ere ahalbidetzen du estudioak.*



## Ukitu modernoa



### Pajaritak bai

Gizonezko ausartagoa azalduko da 2015 honetan. Badago txalekoa eta gorbata erabiltzeko joera duen gizona, baina baita ezkonberri informala ere. Jakek edo *chaqué*-ek garrantzia edukitzen jarraituko dute, eta pajaritek ere euren lekua izango dute.

### Koloreak eta oihalak

Oihalek garrantzi handia izango dute, eta euren arteko nahasketa handiak egingo dira; adibidez, belusa, artilea, *jacquard*-a eta oihal distiratsuak nahastuko dira. Oihal metalizatuak ere garrantzia izango du.

### Koloretsua

Betiko grisak aurkituko ditugu, baina krema koloreak, urre koloreak, granateak, berdeak eta urdin argiak ere agertuko dira. Metalizatuak ere indarrez helduko dira. Gainera, 2015ean posible izango da zuria eta beltza nahastea, ez da txarto ikusita egongo. Horregaz bat egingo dute estanpatuek, *animal print* estiloak, joera etnikoak, arraiek, karratuek eta era guztietako marrazkiek.



### Metalizatuak eta distiratsua

Gizonen artean, oinetako metalizatuak eta distiratsuek izugarri ikusiko dira denboraldi honetan, bai ezkongaien artean, bai gonbidatuen artean.

Iturburu, 9 - IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 817 847

**Leku paregabea dugu zuen ezkontzarako!**  
Zatozte Betixu jatetxera, eta esaguzue zer den behar duzuen egun bereziko.

Guk aholkatuko zaituztegu, eta zuen aurrekontura egokituko gara, zuen ezkontza bakarra eta zuen neurria egin dadin.

## Alkandorak

Alkandorak duen kutsu maskulinoa ezkonberriengana etorri da, eta, era berean, hainbat bertsio sortu dira; batzuek estilo victoriarra dute, eta beste batzuek, aldiz, estilo askoz minimalistagoa.



## Poltsikoduna

Poltsikoak, hainbat bertsiotan, gogor sartu dira denboraldi honetan. Apustu garrantzitsu eta desberdina izan daiteke.

## Sorbaldak bistan

Sorbaldak bistan eramatea da joera. Estilo horrek feminitatea ematen dio jantziari.

## Koloreak


Zuriari, kremari, xanpainari eta arrosari (aurreko urteko kolorea) aurten gris kolorea gehitu zaie.

## Erliebeak eta enkajeak

Erliebeak sartu dira aurten. Parpailek edo enkajeak izar izaten jarraitzen dute ezkongai askoren aukeraketan.

## Eskoteduna

Uhalik gabeko eskotea edo *palabra de honor* deritzon eskotea oraindik ere protagonista da, baina, 2015. urtean, oihal xumez estaltzen da gorputza.



## Minimalista

Estilo minimalistak garrantzia izaten jarraitzen du, baina oraingo honetan parpailek edo *enkajeak* kutsu berezia ematen dio.



## Bi pieza

*Cropped* topek -gerrian amaitzen diren top laburrak-kapek eta bi pieza direla diruditen jantziek indar handia hartu dute, eta ukitu berritzailea ematen dute.



## Urre eta zilar koloreak

Parpailek edo *enkajeak* tendentzia izaten jarraitzen du, eta horregaz bat egingo dute zetazko brokatuek eta era guztietako begiztek; esaterako, karratuak, alde zurretiko formak eta asimetricoak. Koloreei dago kienez, urre eta zilar kolorekoek tendentzia izaten jarraitzen dute.



# Bitxiak

*Txiki eta distiratsuak. Horrelako belarritakoak dira udaberri-uda honetan moda-modan daudenak. Perlekin zein brillanteekin hornituta, ezkontzetan ezin dute hutsik egin.*




## PERLAK BRILLANTEAK



*Ezkontideen pertsonalitatearen eta gustuen arabera aukeratu behar da eraztuna. Izan ere, eraztuna ez da egun bakar baterako aukeratu behar, egunerokorako baizik. Horregatik, garrantzitsua izaten da bakoitzaren estiloa kontuan hartzea.*

## ERAZTUN PAREA



# MANCISIDOR

## 1866

Andra Mari, 9 - 48200 - Durango  
[info@joyeriamancisidor.com](mailto:info@joyeriamancisidor.com)  
 946 810 628

# EGUZKIBODA



EGUZKIBODA ezkontzarentzat  
 ezkontzarentzat eta ezkontzarentzat  
 ezkontzarentzat eta ezkontzarentzat  
 ezkontzarentzat eta ezkontzarentzat

**EGUZKIBODA** ezkongailentzako aholkularitza zerbitzu berria da, Eguzkilore diseinu-bitxiaren markak eskainia.

Dena konpromisoarekin eratu dena da, ezkontza eguneko bitxiak, eta baita ere zuen last egitearen Ruz izango olin eratu dena.

♥ Zuek ezkontzaren bitxiak eratu ondoren, zuek eratu dugun, eta zuek eratu dugun horien gure adierazpena izango da.

👤 Zuen adierazpena eta haren bitxiak eratu ondoren, **EGUZKIBODA** eratu ondoren, bitxiak eratu ondoren.

**EGUZKIBODA**: Zuek bitxiak eratu ondoren, zuek eratu dugun bitxiak eratu ondoren, zuek eratu dugun bitxiak eratu ondoren.



## EGUZKIBODA

EGUZKIBODA: Ezkontzarentzat eta Ezkontzarentzat  
 EGUZKIBODA: Ezkontzarentzat eta Ezkontzarentzat  
 EGUZKIBODA: Ezkontzarentzat eta Ezkontzarentzat

[www.eguzkiboda.com](http://www.eguzkiboda.com)

EGUZKILORE

# Bidaiak



**BANGKOK  
PUKHET**

Thailandiako hiriburuaren xarma eta hondartza erakargarrienak uztartzen dira paradisura egingako bidaia honetan. Bangkok, ondare kultural eta artistikoa hiriburu zaratatsu bat gaz harremanetan bizi da. Puket, berriz, Asiako hondartza onenak aurkituko dituzu.



Habana eta Cayo Santa María bisitatzea proposatzen duen bidaia koloretsu honek bidaiariaren behar guztiak asetzen ditu. Habana hiri koloniala bisitatu eta gero, Cayo Santa Mariako hondartzen lasaitasunera garamatza bidaia erakargarri honek.

**CUBA**



**NEW YORK  
FIJI**

AEBetako hiri erakargarrienetako bat da New York. Egun guztiak atsedenik hartzen ez duen hirian, bisitariak bilatzen duen guztia aurkituko du. Kaleetan aurrera eta atzera ibiltzean pilatutako nekea, Fiji uhartean arintzea proposatzen du bidaia honek.

# Luntxa

*Ezkontzako bazkariaren edo afariaren aurretik gonbidatuentzako mokadu gozoak eskaintzeko ohitura dago. Aukera zabala dago gonbidatuen gozamenerako.*



**LUNTX  
KLASIKOA**



**KANAPEAK  
SUSHIA**





**LiBe**  
Bidaiak



**LIBE BIDAIK  
BIDAI AGENTZIA**  
946 421 740

Zezillia Gallartzagolia, 17 · 48340 AMOREBIETA  
libebidalak@grupoairmet.com







*Askotariko ospakizunetarako catering zerbitzua:  
ezkontzak, enpresa-bazkariak...*

Tel.: 610 340 374  
eventos@sushiartist.es





## *Ezkontza eksklusibo guztiak afalostearekin*

Zuzendaritza: Agustin Hidalgo

Instalazio berriak

Asteenera irabiltzen dugun, eta ordutegia luze dugun

Airportatik eta Bilboetik 10 minutua

Ezkontzetako menu berriak, eta ezkontza bakarreko izotzko aukerak

Egutako menua eta menu ezkontzako espazio:

ingurak eta karta

Sukaldaritza tradizionala

Integritate eta balioak

280 maitatutako ezkontza aukerak

Ingeniari natural izia zure ekitaldirako

Karpa izia ezkontza zibiletan antolatzen

Elberriantzeko kumalak

Aparkelekua zabal eta pribatua

Terraza eta lorategia

Orditze gaitasuneko diskonketa

Itxiki Park eremu babetua

Makroak eduloritzeko gunea

Menu personalizatuetarako eskaintza indibiduala:  
errepak, rite amatera, afariak daktuldekin, bitxirak...

Konkretu datak

Armentak: Euzkoako errepideak, Galtzerria ibatea

Santa Domingoko errepidean zuzenean, 11  
00101 Euzko-Elberri

Tel.: 944 561 176 | [ezkontzak@ezkerta.com](mailto:ezkontzak@ezkerta.com)  
[www.ezkerta.com](http://www.ezkerta.com)


# Argazkiak

*Ezkontzatik geldituko zaizkigun oroitzapenak argazkietan eta bideoan gordeta izango ditugu. Horregatik, garrantzitsua da gure gustuko argazkilari bat aukeratzea eta aterako dituen argazkien estiloa beragaz adostea. Profesional on baten eskuetan egonda, naturaltasunez ateratako argazkiek distira handiagoa izango dute.*

ZALOA FUERTES



ZALOA FUERTES



ZALOA FUERTES

## goikomaia



*Zure ezkontza edo ospakizuna inguru paregabe batean, Anbotoren magalean*

*Catering zerbitzua egiaztatutako enprekin  
Bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu  
Askotariko menuak eta prezioak  
100 pertsonarentzako lekua  
Egun zoriontsu bat izan dezazuela!*

*Santiago auzoa, 15  
48291 Atxondo  
Tel.: 609 871 997  
info@goikomaia.com  
www.goikomaia.com*



LEHIOR ELORRIAGA

## Irudiz irudi

Argazkilariagaz bikote argazkiak ateratzeko momentua aukeratu beharra dago. Ezkontzaren eta bazkariaren arteko unea egokia izan daiteke horretarako, baita ezkontza osteko beste edozein egun ere. Berriro prestatu behar izateak axola ez badizu, bigarren aukera horregaz argazkilariak lasaitasun handiagoz lan egiteko aukera izaten du.

LEHIOR ELORRIAGA



LEHIOR ELORRIAGA




**Jatetxea egunero dago zabalik,  
karta eta menuekin**

Ezkontzak, bataioak, lehen jaunartzeak, urtebetetze festak,  
enpresa batzarrak eta era guztietako ekitaldiak.

RESTAURANTE  
**akebaso**  
JATETXEA





# AbOIZ

[www.aboiz.es](http://www.aboiz.es)  
Arroitzateki baserria,  
San Migel sarea, 2 GARAI  
940 228 240 - [info@aboiz.es](mailto:info@aboiz.es)

*Eklusibotasuna eta dotorezia  
Oiz mendiaren magalean.*

*Bizitza osoan oroituko duzu.*

*Ingurune natural zainduak  
sentsazioz beteko zaitu.*



# Plateruena

***Ez esan inoiz ez zarela ezkonduko.  
Hainbat aukera daude ezkontzeko.***

Plateruenean ezkontza bat ospatuko dela entzutean, jendea harritu egiten da. Ezkontzei buruz berba egiten dugunean, horiek ospatzeko modu jakin bat datorkigu guztioi burura, baina badira bestelako aukera batzuk ere, arinagoak eta dibertigarriagoak, eta hainbeste diru gastatu gabe egin daitezkeenak.

Plateruena nahi duzun eran atondu dezakegu: zuk eskatu, eta guk aurrekontua egingo dizugu.

Ohiko ospakizuna egin dezakegu, aurrez menua adostuta, dantzaldiagaz eta doako edanagaz.

Txoko bat baino gehiago antolatu ditzakegu, self-service eran, askotariko produktuekin: iberikoak, frijituak, kanapeak,

gazta, gozoak... Mahaiak nasai antolatu ditzakegu, gonbidatuak elkarren artean hara eta hona lasaitasunez ibili daitezzen.

Horri, besteak beste, musika-jartzailea, erromeria, kontzertua, proiektzioen bat eta *photocalla* gehitu diezazkiokegu.

Plateruenean ekintza ugari egin daitezke, guztiak zure poltsikoaren neurrira pentsatuta

Plateruena leku zabala da, hainbat txoko ditu erabilgarri, eta ekintza ugari egin daitezke bertan, guzti-guztiak zure eta zure poltsikoaren neurrira pentsatuak.



#### **Kafe Antzokia**

Plateruena  
Landako hiribidea, 4A  
Durango

Tel.: 946 030 300  
jatetxea@plateruena.net

Komisoiak • Kartzeak • Mediak • Bainuko esagarriak • Darruko puntuzko arropa • Pijamak • Tzabusinak  
• Umcentzako arropak eta esagarriak • Sudur-zapiak • Azpiko ganak

# Los Chicos

Zure denda, Bizkaian, 1946tik



**Zure ezkontzarako lentzeria perfektua aukera ezazu**  
**Eskaintza medietan, bularretakoetan eta galtzarrietan.**

BISITA GAITZAZU: Andra María, 14 • DURANGO • Tel.: 946 816 859  
Uribarriko Andra María basilikaren aurrean

Honako  
helbide hauetan  
ere bagaude:

#### **BILBO**

- CASCO VIEJO • Ctra. 3 • Tel.: 944 154 903  
- ZABALBURU • Alda. San Mames, 14 • Tel.: 946 816 859  
- AUTONOMIA • Autonomía, 35 • Tel.: 944 212 247  
- SANTUTXU • Iturriaga, 69 • Tel.: 944 117 094

SANTURTZI • Los Viñas, 19 • Tel.: 944 635 027  
GALDAKAO • Urka, 5 • Tel.: 944 560 787  
BARAKALDO • Merindad de Uribe, 9 • Tel.: 944 781 652



# Casa Jaitetxea

Monumentu artistikoa

Era guztietako banketeak antolatzeke toki bikaina

250 laguntzako jantzea

Udako jantzea

HERNANI

941 941 741 000

[www.casajaitetxea.es](http://www.casajaitetxea.es)





‘Memorial’ diskoa aurkeztuko du Russian Circles hirukoteak, Plateruenean.



Madrilgo Toundra laukoteak itxiko du, 00:30ean, gaurko emanaldia.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Wombat Fest musika jaialdia antolatu du Wombat Booking elkarteak gaurko eta biharko, Durangoko Plateruenean. Antolatzaileen berbetan, “musika jarraitzaileak eta musikariak omendu guran” antolatutako jaialdia da. Hamar musika talderen zuzenekoak izango dira bi egunetan, eta DJen emanaldiekin itxiko dituzte bai gaurko, bai biharko hitzorduak.

Toundra da gaurko kartelburua, eta 00:30etik aurrera joko du Plateruenean. *IV* diskoa aurkeztuko du, eta Euskal Herriaren eskainiko duen kontzertu bakarra izango da. Laukote horren aurretik joko dute Minor

## Hamar musika taldek osaturiko egitaraua dakar Wombat jaialdiak

Wombat Fest jaialdiak musikazalez beteko du Plateruena gaur eta bihar

Empires, Adrift eta Viva Belgrado taldeek, eta baita Euskal Herriko talde bik ere: Eneko MobyDick getxoztarrak zabalduko du jaialdia, 19:30ean, eta, ondoren, *Rooms* diskoa aurkeztuko du Cohen taldeak.

Bestalde, Santiagon (Galizia) jo ostean, eta Londresera (Inglatera) joan aurretik, joko du Russian Circles Chicagoko (AEB) taldeak Durangoan. *Me-*

*morial* diskoa aurkeztuko du Plateruenean, metal doinuak eta soilagoak nahasten dituen.

Getxoko MobyDick musikaria eta Gipuzkoako Cohen taldea jaialdian egongo dira

Nahasketa esperimentalak, giro-doinuak zein elektroakustikoak eskaintzen dituzten DJek girotuko dute kafe antzokia kontzertuen ostean, bi egunetan. Fernando Carvalho, Radithor, Neobot eta La Hora del Caos DJak gonbidatu dituzte.

Egun bakarrerako zein bi egunetarako sarrerak Internet bidez daude eskuragai, [www.kulturalive.com](http://www.kulturalive.com) webgunean.

**APIRILAREN 17an**

19:00etan, ateen irekiera  
19:30ean, MobyDick  
20:15ean, Cohen  
21:00etan, Viva Belgrado  
22:00etan, Adrift  
23:15ean, Minor Empires  
00:30ean, Toundra

Ondoren, Fernando Carvalho, Radithor eta Neobot DJ Set

**APIRILAREN 18an**

20:30ean, ateen irekiera  
21:00etan, Jaundone  
22:30ean, Helms Alee  
23:30ean, Russian Circles

Ondoren, 03:00ak arte, La hora del caos DJa

## Itsasoaz diharduten testuen irakurraldi irekia hartuko du Plateruenak

Sei orduko emanaldia izango da apirilaren 24koa

**> LITERATURA**

*Hitez eta ahotsez* ekimen herriarraren bigarren edizioa biribiltzeko ekitaldia hartuko du, apirilaren 24an, Durangoko Plateruenak. Itsasoa hartu dute aurten ekimenaren ardatz, eta elementu horren inguruan idatziriko literaturaren irakurraldi herritarra da datorren barikurako antolatu dutena.

Antolatzaileek aurreratu dute 225 lagunek dagoeneko izena eman dutela emanaldi horregaz euren ahotsekin bat egiteko. Aurrez izena eman ez dutenek parte hartzeko aukera dute oraindik. Horretarako, [hitezetaahotsez@gmail.com](mailto:hitezetaahotsez@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar dute.

Irakurleak, abeslariak eta musikariak kontuan hartuta, 250 laguneko parte hartzeagaz osatuko dute ekitaldia; 18:00etan hasita, etenbako emanaldia es-

kainiko dute gauerdia arteko ekitaldian. Sei ordu iraungo du Platerueneko ikuskizunak.

Iaz bezala, pertsona ezagunak, idazleak, bertsolariak, poetak, abeslariak, eta, batez ere, irakurle anonimoak elkartuko dira ekimenean. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, “jende ospetsua egongo den arren, ez da izarren gaua izango, partaideen gaua baizik”. Irekia da ekitaldia; edonor joan daiteke saioa entzuterara. Hain zuzen, Plateruena euskal literaturazalez betetzea da antolatzaileen helburua.

Barikuko saioan, egun horretarako sortutako testu batzuk eta sorpresaren bat ere egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Irakurraldiaren muina, baina, Joseba Sarrionandia, Leire Bilbao, Martin Iturbe, Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe, Txomin Agirre, Pako Aristi, Toti



Iaz, 200 partaide inguru elkartu ziren Platerueneko irakurraldian.

Martinez de Lezea, Jon Maia, Aurelia Arkotxa, Edorta Jimenez eta Karmele Igartuaren testuek osatuko dute.

**Itxaropentsu daude**

Eider Rodrigezen (Orereta, Gipuzkoa, 1977) hitzaldiagaz eman zioten hasiera *Itsasoa, hitez eta ahotsez* egitasmoari, urtarrilean. Durangoko Arte eta Historia Museoa izan zen hitzaldia, eta 50 lagun inguru elkartu ziren. Sarrionandiaren literaturan itsasoak izan duen presentziari buruz kaleratu duen liburuz jardun zen Rodriguez.

Otsailean eta martxoan, bestalde, berbaldi dialogikoetan elkartu dira Udal Bibliotekan.

Antolatzaileek aitortu dute “zaila” dela jendea hizketaldietara erakartzea: “Katalunian hain hedatua dagoen solasaldi mota hori gurean ez da oraindik errotu, baina itxaropentsu gaude,

jorratutako bideak merezi izan duelakoan”.

Sei lagunek bultzatzen dute *Hitez eta ahotsez*, Durangoko museoaren, Plateruenean eta Udal Bibliotekaren babesagaz.



Literaturazale talde hau da ekimenaren bultzatzaile nagusia.

# 'Jende desegokia', bere bigarren nobela kaleratu du Gaizka Zabartek

Donostian aurkeztu du Zabartek Susa argitaletxeagaz argitaratu duen liburua


**> LITERATURA** Itsaso Esteban Bere bigarren liburua aurkeztu du Gaizka Zabartek (Zaldibar, 1960). 2011ko *Zaharrek ez zuen hil nahi* liburua bezala, Bilbon kokatuta dago *Jende desegokia*.

2012. urtean hasi zen Zabarte *Jende desegokia* idazten, eta urtebete baino gehiagoko lanaren emaitza da. Peter Zuazo protagonista jasotzen duen gonbidapen bat da nobelaren abia-

puntua: Desegokien Elkarteak antolatu duen topaketa batean parte hartzeko gonbita. Elkarte horretako pertsonen eta Zuazoren bizitzak gurutzatzen direnean sortzen diren gorabeherak kontatzen ditu nobelak, eta badago atzera begirako zati bat ere: orainaldian eragina duten 1980ko hamarkadako gertakari batzuk kontatzen dira nobelaren beste parte batean.

Pertsonen arteko hurbiltze eta urruntzeak, amodio eta desmodio kontuak, mendekua, botere harremanak, pertsona taldeen artean sortzen diren gatazkak... Horiek guztiak jorratzen ditu Zabartek nobelan.

Postari eta idazle izandako Zuazogaz batera, Odile Mores emakumezkoa da *Jende desegokia* laneko beste protagonista.



Gaizka Zabarte artxiboko irudian.

## Ingalaterran Bafta sari bi jaso ditu Iruñe Gurtubaik

### > ZINEMA

Baftak, Ingalaterrako zinema akademiak, antolatzen duen zinema jaialdian sari bi eman dizkiote Iruñe Gurtubai elorriarrak eta Ben Sharrock kide eskoziarrak egindako *Patata tortilla* filmari; dramarik eta gidoirik onenaren sariak jaso dituzte zinegileek.

Euskal Herrian grabaturiko lana da *Patata tortilla*, krisi ekonomiko betean harremanari eusteko bikote baten bizipenak kontatzen dituena.

Edinburgoko (Eskozia) Screen Academy zinema eskolan ezagutu zuten elkar Iruñe Gurtubaik (Elorrio, 1987) eta Ben Sharrockek (Edinburgo, 1988). Orduetik hona elkarlanean ekoitzi dituzte zinemako euren proiektuak, eta hainbat sari jaso dituzte.

## 'Ezpalak' diskoa aurkeztu du Berrizko Seiurte taldeak

Maiatzean bost kontzertu eskainiko ditu laukoteak



Berrizko laukotearen hamaikagarren diskoa da 'Ezpalak'.

### > MUSIKA

Hamaikagarren grabazio lana aurkeztu du hogeituroko ibilbidea daukan Berrizko Seiurte taldeak. Bilbon (Bizkaia) egin zuen asteazkenean *Ezpalak* izenburua duen diskoa aurkezteko prentsaurrekoa, eta Tolosa-

ko (Gipuzkoa) Bonberenean estreinatuko du zuzenean. Horren ostean, maiatzean, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan beste bost kontzertu eskaintzekoa da laukotea. Maiatzaren 23an joko du, esaterako, Durangoko Plate-ruena Kafe Antzokian.

## 'Abadiño, hak badiño' obra eskainiko du Et@rte taldeak

### > ANTZERKIA

Abadiñar gazte batzuek osaturiko Et@rte antzerki taldeak emanaldia eskainiko du apirilaren 19an, 18:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Mikel Azkarraga Etxegibel abadiñarrak idatzirik *Abadiño 1942an* eta *Mille ogorleko baietz* antzezlanen moldaketa da prestatu dutena. *Abadiño, hak badiño* izenburukoa da ikasturte honetan udalak babesten duen antzerki tailerrean sortu duten obra.

Iaz ere sasoi honetan aurkeztu zuten *7 aulki* izeneko antzezlan, Errota kultur etxean. Et@rte antzerki taldeko 12 eta 17 urte arteko 25 gazte sortu zuten antzezlan hura; DBHko eta batxilergoko Abadiñoko ikasleak ziren denak.

*Ezpalak* diskoaren aurkezpen orrian Fermin Etxegoien kazetariak adierazi duenez, "inoizko sonoritatekin trinkoenagaz ageri zaigu Seiurte disko berrian". Etxegoienek dio ezaguna dela, betidanik, "Seiurteren ahalmena melodia distiratsua hegan jartzeko", baina *Ezpalak* diskoan "taldeak harago joatea lortu du; orain arte ezagutzen ez genizkion bertuteak, hala melodikoak nola erritmikoak, modu ezin bateratsuagoan ageri zaizkigu".

Iñaki Elortza (gitarra), Ekain Elortza (bateria) eta Iokin Elortza (gitarra eta ahotsa) anaiek, eta Julen Oarbeaskoa (baxua) taldekideak inoiz erakutsi duten nortasun artistikori sendoenaren aurrean gaude la uste du Etxegoienek.

Zortzi kantuk osatzen dute *Ezpalak* diskoa: *Bandera zuria*, *Lau akordeen matxinada*, *Egun euritsuak*, *Road Movie*, *Ezpalak*, *Txernobil*, *43. paraleloan* eta *Profit*. Herriko Estoldetan estudioan autoekoitzi dute lan berriztarrek.

## GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

Kazetaria



### Apirilaren 17a

Gaur ez da abenduaren 3a, baina herri bat dugu irabazteko; eta gaur ere egingo dut tiro, mingaina kargatuta: irainak, lausenguak, errietak, esker oneko hitzak... Eta ez diot inori barkamenik eskatuko. Eta ez dut beste inor baino gutxiago naizela pentsatuko.

Gaur ez da maiatzaren 1a, baina zergatik itxaron? Ozen esango dut gaur ere jan egin nahi dudala, etxean argia isiotuko dudala eta lagunekin garagardo bat hartzeko geratu naizela; eta hori guztia duintasunez egiteko eskubidea dudala!

Gaur ez da martxoaren 21a, baina argi diot polizia batek lepotik tiro eginda hiltzen banau, behin eta berriz jaioko naizela, eta gero eta beltzago izaten saiatuko naiz mundura sortzen naizen bakoitzean. Eta zuek nor zaretan argi izateko paper zati bat behar baduzue, utz gaitzazue gainontzekook bacean, zuen kontua delako hori; bai, *black is beltza*, eta harro nago!

Gaur ez da maiatzaren 17a, eta telebistatik ez da normaltasun artifizial baten oihartzunik irten-go, baina nahi diodanari emango diot musu, Zornotzan zein Algortan. Barrote gehiegi dagoelako lehendik ere maitasuna giltzarri-poetara kondentatzeko.

Gaur ez da martxoaren 8a, baina zorionez emakume izaten jarraitzen dut: zorteko jaio nintzen, sentitzen dut zuengatik!

Baina gaur ere badelako nire eguna, badut zer aldarrikatu eta zer ospatu.

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

## Su izan nahi Hildakoak, senideak eta maskotak

Metrokoadroka Teatroa  
Apirilaren 18an  
20:00etan

San Agustín KULTUR GUINEA DURANGOKO UDALA

antzerki

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net  
Londako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

## JAT ETXEA

EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK OSTIRALERA

WOMBAT FEST 2015

APIRILAK 17 19:00etan  
WOMBAT FEST  
THE BLESSED MINDS OF MEN, JEFF WATTS, BECKY GAO, JOHN JACOBSON

APIRILAK 18 20:00etan  
WOMBAT FEST  
THE BLESSED MINDS OF MEN, JEFF WATTS, BECKY GAO, JOHN JACOBSON

APIRILAK 19 8:00etan  
AIKO ERROMERIA  
JANTZA



# Iurretako 35. Hiri Proba antolatu dute domeka honetarako

Aurten ere iazko ibilbide bera mantentzea erabaki dute antolatzaileek



Cristina Petite, Iñaki Totorikaguena eta Juan Ignacio Hernández domekako probaren aurkezpenean.

## > ATLETISMOA E.A. / J.D.

Iurretako 39. Hiri Proba lehiazko dute domeka honetan, apirilaren 19an. Iaz ibilbidea moldatu, eta hirigunetik atera zuten. Aurtengo ediziorako ibilbide bera mantentzea adostu dute antolatzaileek. Lasterketa Espainiako sailkapenatarako baliagarria da.

Bost kategoriatako lasterketak izango dira. Elitekoen ba-

rruan (10 km) junior mailakoak, maila absolutukoak eta beterranoak jardungo dira. Txikienek (2009tik aurrerakoak) Txupete lasterketan hartuko dute parte. Iaz 100 ume aritu ziren, eta aurten ekimena mantendu dute, zaletasuna sustatzeko.

Partaidetzari dagokionez, iazkoa baino handiagoa izango da; elite mailan bai behintzat. Bidezabaleko Juan Ignacio

Hernandezen esanetan, iaz 70 lasterkari izan ziren, eta aurten kopuru hori bikoiztu, eta 160 bat izatea espero dute.

Maila handiko korrikalariak etorriko dira, tartean iazko gizonetako lehenengo bi sailkatuak (Iban Fernandez eta El Hassan Ouabadi). Emakumezkoetan Iris Fuentes eta Estela Navascues izango dira, besteak beste. Iraia Garcia zornotzarra

**11:00**etan, kadete eta gazte maila (2.400 m)

**11:20**an, benjaminurrekoak (800 m)

**11:40**an, kimu mailakoak (1.600 m)

**12:00**etan, juniorrak, maila absolutukoak eta beterranoak (5 km edo 10 km)

**12:05**ean, txupete mailakoak (200m)

(Santutxu AT) ere faboritoen artean izango da.

Goi mailako korrikalariak datozen arren, proba herrikoia dela gogoratu dute antolatzaileek, eta korrikarako zaletasuna dutenei parte hartzeko deia egin diete: “Mundu guztiari zabalik dagoen lasterketa da”, adierazi du Hernandezek. Cristina Petite korrikalari ohiak parte hartzeko deia luzatu die guztiei: “Munduko Txapelketan eta Olinpiar Jokoetan ibili diren korrikalarien ondoan aritzea ez da egunero sortzen den aukera bat”.

Izena ematen duenak 5 edo 10 km-ko lasterketan parte hartzeko aukera izango du. Gainera, iurretarek erdia ordainduko dute. Hernandezen iritziz, “bertako udalak esfortzu handia egiten du lasterketa ondo atera dadin; horregatik, iurretarek hori, behintzat, merezi dute”. Domekan bertan ere eman daiteke izena, lasterketak hasi baino ordubete lehenagora arte.



Oier Ariznabarreta eskuman, Espainiako Txapelketa amaitu ostean.

## Espainiako Txapelketan brontzea Ariznabarretak

Europako Txapelketara begira dago durangarra

### > DUATLOIA

Sorian jokatuak Espainiako Duatloi Txapelketan –esprint modalitate– brontzea irabazi du Oier Ariznabarretak (Mugarrat). Emilio Martinek (57.43) goitik behera agindu zuen proba osoan, eta gainerako guztien gainetik ibili zen. Podiumeko bigarren koska Sergio Lorenzok (58.46) bete zuen. Ariznabarretari hiru segundora geratu

zitzaien bigarren postua: 58.49. Irteeran nahi baino atzerago jarri zuten, eta horrek atzetik aurrerako bidea egitera behartu zuen. Hala ere, lasterketarako diseinatutako taktika ondo irten zitzaiola adierazi du.

Orain Europako Duatloi Txapelketa du jomuga. Apirilaren 25ean eta 26an jokatu dute, Alcobendasen (Madril, Espainia).

## DRT, porrot latzaren aurrean baikortasuna

Igoera faseko lehenengo partidua 36-0 galdu du

### > ERRUGBIA

Cajasol Ciencias Sevillaren zelaira egindako bisitan, Durango Rugby Taldeak 36-0 galdu du igoera faseko lehenengo partidua. Taldeak ezin izan zuen puntu bakar bat ere lortu, eta, gainera, Sevillak bonus puntua ere batu zuen –bost puntu–; horregatik guztiagatik, “porrot latza” izan zela onartu du Ines Etxegibel entrenatzaileak.

Baina egoerari buelta emateko, oraindik hiru partidu ditu aurretik. Gainera, hurrengo partidua biak etxean izango ditu, Durangoko Arripausetan: lehenengo apirilaren 26an, Sant Cugat taldearen aurka, eta bigarrena maiatzaren 3an, Cajasol Ciencias Sevillaren kontra: “Gu animatuta gaude, eta baikorrak gara. Etxean final bi ditugu, eta dagoeneko egun

horiek heltzeko gogoz gaude. Erronkari aurre egiteko burua prest dugu. Argi dut talde honek aurrera egingo duela”.

### Esperientzia falta

Joan zen domekan, DRT ondo sartu zen partiduan, eta lehenengo hogeita minutuetan nagusi izan zen. Baina lehen zatiko azken ordu laurdenean behera egin zuen, eta Sevilla puntuak pilotzen hasi zen: “Defentsak ezin izan zituen geratu, edozein lekutatik hasi ziren sartzen. Apur bat galduta ibili ginen”. Bigarren zatian ezin izan zuten markagailua irauli. DRTk partiduen handitasuna nabaritu zuen, eta ez zuen egoera ondo kudeatu. Etxegibelen ustez, gakoetako bat horrelako partidua jokatzeko taldeak duen “esperientzia falta” izan zen.

### > FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Kulturala - Berio

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

#### OHOREZKO MAILA

##### Iurretako - Derio

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

#### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

##### Ezkurdi - Berriatuko

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausetan.

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Zorrotzako - Lekeitio B

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

##### Zaldia B - Derio B

· Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Elorrioko Buskantza - Santurtzi

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

#### EUSKAL LIGA

##### Sapuberri - Bilkoin Legorreta

· Zapatuan, 19:00etan, Durangon.

##### Mallabia - Eskoriatza

· Domekan, 17:15ean, Zaldibarren.

#### LEHENENGO ERREGIONALA

##### Mallabia B - Zuentzat

· Domekan, 19:15ean, Zaldibarren.

##### Elorri Txiki - Mazuberri

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrian.

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Elorrioko Buskantza C - Bertiortzi

· Domekan, 12:15ean, Elorrian.

##### Gu Lagunak - Botxo-Gizon

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

### > SASKIBALOA

#### ZILARREZKO ADECCO LIGA

##### Zornotza - Canarias

· Zapatuan, 20:00etan, Zornotzan.

#### LEHENENGO MAILA (gizonak)

##### Tabirako-Baqué - La Salle

· Zapatuan, 19:00etan, Durangon.

#### LEHENENGO MAILA (emakumeak)

##### Tabirako-Baqué - Zurt Taberna

· Domekan, 12:00etan, Durangon.

#### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

##### Tabirako-Baqué - Agustinos

· Zapatuan, 16:45ean, Durangoko Merkatu plazan.

##### Zornotza - Leioa Berri

· Domekan, 20:00etan, Zornotzako Ikerbelean.

#### LEHEN ERREGIONALA

##### Anbotopeko - Aurrera

· Zapatuan, 18:00etan, Durangoko Tabiran.

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Tabirako-Baqué - Salesianos

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

### > PILOTA

#### BIHARKO IZARRAK

##### - Agirre-Erasun / Labaka-Martinez

· Apirilaren 23an, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

##### - Peña-Lasa / Errandonea-Mateo

· Apirilaren 23an, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

# Zorrontzako Lehenengo Erregionalera igo da, eta Amorebieta B igoeraren atarian dago

Zorrontzako futbol taldeak historian aurrenekoz jokatuko du Lehenengo Erregional mailan



Zorrontzako futbol taldeko jokalariek, Orduña menderatu ostean, igoera ospatzen.

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Futboleko Bigarren Erregionalan Zorrontzako talde biek agindu dute aurten. Denboraldia amaitzeko lau jardunaldiren faltan, Zorrontzako taldeak dagoeneko mailaz igo du. Igoerako beste txartela Amorebieta B-ren

eskuetan dago gaur-gaurkoz, eta zazpi puntuko abantaila du Solokoetxe hirugarren sailkatuarekiko. Beraz, asteburu honetan bertan lortu dezake igoera.

Zorrontzakok, ostera, aurrenekoz jokatuko du Lehenengo Erregionalan. Bigarren Erre-

gionalean egonkortzea lortu zuenetik, igotzeko hautagaien artean egon da urtero. Iaz urtea indartsu hasi zuen, baina hauspoa galdu zuen denboraldiak aurrera egin ahala. Aurten oso erregular ibili da, eta horrek eman dio igoera: “Denboraldi

biribila irten zaigu”, adierazi du Oier Larrondo jokalariek.

Aste Santuaren aurretik Orduña 0-1 menderatuta lortu zuen taldeak igoera. Partidua amaitzear zela, 88. minutuan heldu zen gola, Mikel Ariz zentralaren jaurtiketa bati esker.

Zorrontzako talde fidagarria izan da etxean zein kanpoan. Denboraldi osoan hiru partidu bakarrik galdu ditu, eta mailako talderik golegileena izan da (70 gol). Horren erantzuleetako bat Unai Becerra da: hamazazpi gol sartu ditu.

## Amorebieta B igotzear

“Polita litzateke Amorebieta B ere igotzea, eta datorren urtean maila bat gorago derbia errepikatzea”, dio Larrondok. Aukera handia dago hori gertatzeko. Zazpi puntuko abantaila ondo kudeatzean dago gakoa. Maiatzaren 3an, azkenaurreko jardunaldian, elkarren kontra jokatuko dute Amorebieta B-k eta Solokoetxek. Igoera jokoan badago, oso partidu berezia izango da.

## Iban Tarsicio lider dago auto txapelketa bitan

Rallysprintean eta mendi igoeretan lehenengo dago

### > AUTO LASTERKETA

Iban Tarsicio abadiñarra une gozoa bizitzen dabil. Joan zen asteburuan, Euskadiko Mendi Igoeren Txapelketako lehenengo lasterketa irabazi zuen: Opakuara Igoera. Gainera, hiru lasterketa igaro ostean, Rallysprint Txapelketako liderra da.

Aurten 90 kilo kendu dizkio Mitsubishi EVO IX.ari, eta alde igartzen duela adierazi du. Opakuako Igoera aurtengo denboraldian pilotuek lehorrean lehiatu ahal izan duten

lehenengo lasterketa izan zen, eta inork ezin izan zuen Tarsicioen erritmoa berdindu.

Rallysprint Txapelketan, berriz, Gabirian bigarren eta Goierrin laugarren sailkatu ostean, Hondarribian garaipena lortu zuen orain hiru asteburu, eta sailkapeneko lider jarri da. Adierazi du Hondarribikoa dela guztietatik “gehien gustatzen” zaion lasterketa. Hala ere, ez zen lasterketa eroso izan, “errepidea inoiz baino zikinago zegoelako”.

## Etzi hasiko da Herriarteko Pilota Txapelketa

Durangaldeko lau ordezkari izango dira bertan

### > PILOTA

Asteburu honetan hasiko da 46. Herriarteko Pilota Txapelketa, eta Abadiñok, Iurretak, Mallabiak eta Zorntzak txapelketan parte hartuko dute.

Abadiñok iaz ez zuen parte hartu, eta, ondorioz, lehenago hasi beharko du jokatzen, iazko emaitzen arabera osatzen delako kanporaketa taula. Apirilaren 19an izango du lehenengo partidua, Bilboren aurka. Aipatzekoa da, irabaziz gero, Iurreta izango duela aurkari, maiatza-

ren 3an –joaneko partiduak– eta 10ean –itzulikoak–.

Zorntza eta Mallabia final zortzirenetan hasiko dira lehiatzen, eta lehenengo kanporaketa maiatzaren 17an eta 24an jokatuko dute. Aurkariak zeintzuk izango diren zehaztu gabe dago.

Esku pilotako txapelketako finala ekainaren 26an jokatuko dute, Bilboko (Bizkaia) Club Deportivo pilotalekuan. Erreminta txapelketako finala, ostera, Zorntzan jokatuko da.

## ADITUAREN TXOKOA



### Unai Zamalloa

Saskibaloia

## Azken txanpan playoffetara begira

Denboraldia aurrera doa, eta momentu garrantzitsuak datoz orain. Liga erregulararen azken fasean sartuta, mailan gora egiteko playoffetarako sailkapenak dira orain helburu nagusi. Horrek ezinbesteko egiten du partidu bakoitzean garaipena lortzea.

Horrela, Zorntza Saskibaloia Taldea buru-belarri ari da. Aurreko larunbatean, Galizian, Marin Peixelagoren kontra garaipena (65-71) lortu ondoren, Urrezko LEB mailarako igoera jokatuko playoffetako lehenengo fasean kantxa faktorea alde dauka, laugarren postua indartuz eta atzeko taldeei bi partiduren aldeko diferentzia gehituz.

Lesioek ekarri dituzten arazoak gaituta, Mikel Gariñonandiarren taldeak denboraldi benetan ona darama, eta playoffetan ondo aritzeko aukera asko ditu, eta horretarako kantxa faktorea alde edukitzeak garrantzi handia dauka.

Beste alde batetik, Tabirako Baqueko neskak buru-belarri ari dira, eta hurrengo jardunaldia Zurt Taberna ISB taldearen aurka dute, igande honetan, Landakon, 12:00etan. Gipuzkoarrak hiru garaipenera daude sailkapeneko hirugarren postuan, eta partidua irabazteak konfiantza ekarriko die eta aukera gehiago zabalduko die.

Ea azken fase honetan, berriro ere, ondo amaitzen duten gure taldeek. Egia esanda, denboraldi ona da aurtengoa. Ea bikain bukatzen duten!

Askatasun etorbidea, 1 DURANGO • Tel.: 946 817 658  
- Laster Zorntzan ere bai -

ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA

2014-2015 VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA



## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD**  
Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- BERRIZ: Atikoa. Logela. Garaje itxia. 450 euro hileko.
- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500 euro hileko.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- Guztiz berriztatuta atikoa. Logela 2, komuna, sukalde amerikarra. Garajea aukeran.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 125.000n.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 140.000n-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Eremu onean kokatuta.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ATXONDO

- 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Garaje itxia. Etxe osoa kanpora begira dago.
- 3 logela, sukaldea esekitokiarekin, egongela eta komun 2. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

#### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

#### ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

#### DURANGO

- Lursail erdia bi familiako etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

#### BERRIZ

- MURGOITIO: Bi familiako etxebizitza. 6 logela, sukalde 2, egongela 2 eta 6 komun. Garaje bikoitzak. 12.000 m2-ko lursaila. Anbotora begira. Kokaleku ona.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### GARAI



- Txaleta. 156 m2 eraikitzen. 3 logela, sukaldea, despentsa eta komun 2. Portxe zoragarria. Eremu pribilegiatu batean kokatuta. **430.000n.**

#### ZALDIBAR



- Familia bakarreko txaleta. 620 m2-ko lursaila. Behean, 3 logela. Etxabe estalia eta argia. 2 autorentzako garajea, trastelekua eta txokoa erdisotoan. Hegoaldera begira. **385.000n.**

#### EUBA



- Baserri erdia. Bizitzen sartzeko moduan. Gutxi gorabehera 200 m2 bi solairutan banatuta. Halla, pasilloa, sukalde jantzia, egongela zabala, trastelekua, 3 logela eta 3 bainugela. 7.500 m2-ko lursaila. **378.000n.**

#### EUBA



- Lursaila. Arkotxan, 3.500 m2-ko partzela lau zoragarria, ingurune eder batean. Beste baserri eta txalet batzuk ditu inguruan. Oso eguzkitsua eta zabala. Etxebizitza familiabakarra eraikitzeko baimena du. Oinarrizko proiektua barne. **179.000n. Prezio negoziagarria.**

#### ERRENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Esekitoriarekin. **149.000n. Prezio negoziagarria.**

#### SAN FAUSTO



- Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Berogailua. **88.000n.**

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
  - ARAMOTZ: Halla, 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
  - ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
  - ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
  - LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
  - BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
  - ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
  - ERRENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
  - EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
  - EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
  - EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela.
  - F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
  - FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
  - GALTZARETA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
  - IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
  - JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
  - JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
  - JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
  - KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
  - KOMENTU KALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
  - MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
  - MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
  - MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
  - PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
  - SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
  - SAN INGAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
  - SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
  - SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
  - TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Lokal komertziala.
  - TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
  - UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ABADIÑO
- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Despentsa. Balkoia.
  - ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
  - ZELETABE: Berriztatze.

**Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

### AUKERA

- MATIENA: 3 logela, egongela eta komuna. 94.000n.
- ARAMOTZ: 4 logela, komuna eta egongela. 106.000n.
- ALDE ZAHARRA: 3 logela. Igogailua. 126.000n.
- F.J. ZUMARRAGA: 4 logela eta egongela. Terraza. 145.000n.
- MATIENA: 60 m2. Logela 2. Ganbara. Berriztua. Bizitzen sartzeko moduan. 110.000n.
- ANTSO ESTEGIZ: Logela 2, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Berogailua eta igogailua. 110.000n.
- BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. 128.000n.


### ETXEBIZITZAK SALGAI

- OIÑITURRI: Erdi berria. 140 m2. 4 logela, komun 2, sukaldea eta egongela handia. Balkoia. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Solariuma. 350.000n.
- GARAI: Txalet adosatua. 300 m2. Txoko-garajea. Prezio ona.
- ALLUITZ: Apartamentua. Sukalde handia. Ganbara. 147.000n.
- SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Berriztua.
- MATIENA: 120 m2. 3 logela eta komun 2. 150.000n.
- LEHENAKARI AGIRRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta esekitokia. Ganbara eta garajea. 259.000n.
- IURRETA: 3 logela eta egongela. 120.000n.
- M.TORRE: 3 logela, komun 2 eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukaldea. Ganbara eta garajea.
- IURRETA: Logela 2, komuna eta sukalde handia. Balkoia. Igogailua. Berriztua.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela. Terraza 2. Ganbara. 174.000n.
- BERRIZ: B. Gabiola. Erdi berria. 3 logela, komun 2 eta egongela. 180.000n.
- ZABALE: 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. Garajea.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. 179.000n.
- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. Trastelekua eta garaje itxia.
- ARANDOÑOTORRE (musika eskola ondoan). 130 m2. 4 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Garajea. Solariuma. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.
- MONTEVIDEO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua. 150.000n.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garaje itxia.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 173.000n.
- ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Berriztua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Garajea aukeran. 186.000n.
- FKO. IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea.

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: Okindegia martxan. 160 m2. Alokairuan, erosteko aukerarekin.
- IBAIZABAL: 51 m2. Egokitua. 590n.
- J.M. ALTUNA: 50 m2. Komertziala. 500n.
- PARKEAN: 60 m2. Frutategia. 600n.
- SAN IGNAZIO: 125 m2. Izkian erakusleho handi bat dauka. Salgai/alokagai.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**JULENE AZPEITIA  
HAURRESKOLA**  
**Matrikulazio  
epea zabalik**

Maiatzaren  
4tik 13ra, biak bame  
Etor zaitzate  
Haurrezkola ezagutzera!

JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA  
Zuzendaria: Julene Azpeitia  
Zuzendakidea: Julene Azpeitia  
48100 Durango  
Tel: 946 393 500  
[www.haurrezkolaazpeitia.net](http://www.haurrezkolaazpeitia.net)

# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 18an, 20:00etan, Durangoko San Agustinen**

## Su izan nahi

Zubi antzerki lehiaketaren babesagaz sorturiko antzezlan da 'Su izan nahi: hildakoak, senideak eta maskotak' eta Durangoko San Agustin kulturgunean estreinatuko dute bihar. Metrokoadroka taldeko Jabi Barandiaranek, Idoia Beratarbidek, Oier Guillanek, Ander Fernandezek eta Asier Sarasolak sortu dute diziplina anitzeko antzezlan hau.



## Jaiak

### :: IURRETA (Oromiñoko jaiak)

APIRILAREN 24an

**Iluntzean**, Donien Atxa jasoko dute. Ondoren, igel txapelketa.

**22:00etan**, Izaro Andresen kantaldia. Ondoren, Baghdad + 11 Ikusteko Jaiak + Moonshiners.

APIRILAREN 25an

**09:00etan**, kalejira, auzoan zehar. Ondoren, dantza.

**12:00etan**, meza. Jarraian, herri bazkaria.

**17:00etan**, briska txapelketa, umeen dantza erakustaldia eta umeentzako jolasak.

**Iluntzean**, tortilla txapelketa. Ondoren, Luhartz taldearen erromeria.

APIRILAREN 26an

**12:00etan**, meza. Ondoren, Mikel Deuna dantza taldearen eta Durangaldeko bertso eskolako saioa.

**18:00etan**, Kepa Junkera.

### :: OTXANDIO (Euskaraz Bizi Eguna)

APIRILAREN 18an

**09:00etan**, mendi irteera Mirugainera. Ondoren, Soinubilegaz kantu-potea, txistulariak, Urdax Magunazelaia harri-jasotzailea eta euskal border txakur erakustaldia.

**14:30ean**, herri bazkaria, pilotalekuan. Bazkalostean, Gibelurdinak musika taldea.

**18:30ean**, ekitaldia, plazan. Ondoren, Vulkano taldearen partidua, Urduri dantza taldearen emanaldia, Batukotx batukada, eta kale animazioa.

**Gaeuan**, Gozategi + Luhartz + Governors, plazan, eta DJak gaztetxean.



## Antzerkia

### :: DURANGO

APIRILAREN 18an

**20:00etan**, 'Su izan nahi', San Agustin kulturgunean.

APIRILAREN 19an

**18:00etan**, 'Aladdin', San Agustin kulturgunean.

### :: ELORRIO

APIRILAREN 24an

**22:00etan**, 'Maitasunaren ostean maitasuna', Arriolan.

### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 17an

**21:00etan**, 'Amodioaren ziega', Zornotza Aretoa.

APIRILAREN 24an

**21:00etan**, 'Juana, la reina que no quiso reinar', Zornotza Aretoa.



## Kontalaria

### :: BERRIZ

APIRILAREN 18an

**20:00etan**, Munduko Kontu Kontalariak, Kultur Etxean. Monika Klose eta Ángela Arboleda.

### :: DURANGO

APIRILAREN 17an

**20:00etan**, Munduko Kontu Kontalariak, Udal Liburutegian. Josu Camara, Monika Klose eta Celso F. Sanmartín.

APIRILAREN 18an

**12:00etan**, Munduko Kontu Kontalariak, Udal Liburutegian. Josu Camara.

### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 18an

**11:30ean**, Phanton Manor ipuin kontalaria (ingelesez), liburutegian.

APIRILAREN 17an

**22:00etan**, Munduko Kontu Kontalariak, Arriolan. Josu Camara, Monika Klose, Ángela Arboleda, Luis Correia eta Celso F. Sanmartín.



## Erakusketa

### :: BERRIZ

APIRILAREN 22ra arte

'Noctis Labyrinthus' argazki erakusketa, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

APIRILAREN 19ra arte

Pilar Garcia Calleja argazkilaria lana, Ezkurdiko udal aretoan.

APIRILAREN 22ra arte

'Goazen gudari danok' erakusketa, Landako Gunean.



## Zinema

### :: BERRIZ

APIRILAREN 17an (22:00etan) eta APIRILAREN 19an (19:00etan)

'Perdiendo el norte', Kultur Etxean.



## Aurkezpena

### :: BERRIZ

Apirilaren 22an

**20:00etan**, 'Noctis Labyrinthus', argazkiak eta literatura, Kultur Etxean.



## Ikastaroa

### :: DURANGO

APIRILAREN 17an (17:00etatik 20:00etara), eta APIRILAREN 18an (09:00etatik 14:00etara)

Barreterapia ikastaroa, Ibaizabal ikastolan.



## Bertsoak

### :: ZALDIBAR

APIRILAREN 22ra arte

Sei orduko bertsoaritzza ikastaroan parte hartzeko izen-ematea, liburutegian.



## Musika

### :: DURANGO

APIRILAREN 17an

**19:00etan**, Wombat Fest jaialdia, Plateruenean.

APIRILAREN 18an

**21:00etan**, Wombat Fest jaialdia, Plateruenean.

APIRILAREN 18an

Yogurina Bourova + Ruben Roy, Txoria Nuen Maite tabernan.



## Berbaldia

### :: ABADIÑO

APIRILAREN 18an

**12:00etan**, Agustí Barrera, Arenys de Munt (Herrialde Katalanak) herriko galdeketa, Txanportan.



## Zirkua

### :: BERRIZ

APIRILAREN 17an

**18:00etan**, 'L'Effet Escargot', Olakueta plazan.



## Irteera

### :: BERRIZ

APIRILAREN 18an

**07:00etan**, XX. Gernika-Oiz-Berriz mendi ibilbidea, Olakueta hasita.



## Irakurtaldia

### :: DURANGO

APIRILAREN 24an

**18:00etatik 00:00etara**, 'Itsasoa, hitzez eta ahotsez' irakurraldia, Plateruenean.




## Lehiaketa

### :: ZALDIBAR

MAIATZAREN 22ra arte

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Maiatzaren 22ko 15:00rako, udaletxean.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### Pride

- barikua 17: 19:30
- zapatua 18: 22:30
- domeka 19: 21:00
- astelehena 20: 21:00
- martitzena 21: 20:00

#### Insurgente

- barikua 17: 22:00
- zapatua 18: 19:30
- domeka 19: 18:30
- astelehena 20: 18:30

#### Disney junior party

- zapatua 18: 17:00
- domeka 19: 16:30

#### 2. ARETOA

#### Little Galicia

- barikua 17: 19:30/22:00
- zapatua 18: 19:30/22:30
- domeka 19: 18:30/21:00
- astelehena 20: 18:30/21:00
- martitzena 21: 20:00

#### Zazpigarren ipotxa

- zapatua 18: 17:00
- domeka 19: 16:30

#### Nanneri-La hermana de Mozart

- eguena 23: 20:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### Selma

- zapatua 18: 22:30
- domeka 19: 20:00
- astelehena 20: 20:00

#### Home

- domeka 19: 17:00

### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

#### Txarriboda

- zapatua 18: 22:30
- domeka 19: 20:00
- astelehena 20: 20:15

#### El amor de Tony

- eguena 23: 20:15

**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 17**  
09:00-09:00  
**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango  
09:00-22:00  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
22:00-09:00  
**Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza  
**ZAPATUA, 18**  
09:00-09:00  
**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango  
09:00-13:30  
**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango  
**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango  
**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango  
**Bazan Diaz**  
Urizarri 5 - Durango  
**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango  
**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango  
**De Diego**  
Intxaurrondo 22 - Durango  
**Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio  
**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz  
**Guarrotxena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza  
**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
22:00-09:00  
**Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**DOMEKA, 19**  
09:00-09:00  
**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza  
**ASTELEHENA, 20**  
09:00-09:00  
**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango  
**Guarrotxena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)  
**MARTITZENA, 21**  
09:00-09:00  
**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango  
**Guarrotxena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**EGUAZTENA, 22**  
09:00-09:00  
**Bazan Diaz**  
Urizarri 5 - Durango  
**Guarrotxena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza  
09:00-22:00  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza  
**EGUENA, 23**  
09:00-09:00  
**De Diego**  
Intxaurrondo 22 - Durango  
**Guarrotxena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza  
**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzieneko 14:00ak arteko epea



> Apirilaren 20an eta 29an **Amaiurrek** eta **Uxuek** urteak beteko dituzte. Zorionak bikote!



> Apirilaren 14an **Intzak** 6 urte bete ditu. Musu handi bat eta besarkada bat etxeko guztion partez.



> Berrizko **Lidak** apirilaren 19an 5 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu handi bat Dukienakoen partez!



> Ongi etorri **Peio**. Pasa den apirilaren 7an jaio zen Peio. Ane, ondo zaindu zure nebatxoa e! Zorionak Nahikari eta Josu. Abadiñoko kuadrilla.



> Ondo etorri, **Ekhi!** Zelako goxotasuna ekarri dozun etxera! Guraso edarrak daukozuz! Zorionak family, "izekuen" partez. Mosu handi bana!



> Bikiak ez baina... egun berean jaioak! 5 urte jada! Zorionak bikote! Egun oso ona pasa! Mosu haundi bat!



> Zorionak **Alaitz** zure bigarren urtebetetzean. Jarraitu sorgintxo bat izaten! Izugarri maite zaitugu. Musu handi bat etxekoen partez!



> Apirilaren 7an **Maddik** 4 urte bete zituen. Zorionak prexioxa! Mosu potoluek etxeko danen partez!



> Apirilaren 13an **Uxuek** 9 urte bete zituen. Zorionak prexioxa! Super marrubizko mosu pilue etxeko danen partez!



> Pasa den asteburuen gure txikitxuen urtebetetzeak ospatu genituen! **Iparren** 4. urtebetetzea eta **Paulen** lehen urtebetetzea. Mosu handi bana.



> Zorionak maitia! 6 urte ja... Ze haundia! Zorionak eta urte askotarako! Aitaxo eta familia osoaren partez. Maite zaitut... infinito!



> **Amaiurrek** apirilaren 12an 11 urte bete zituen, eta **Jonek** 20an beteko ditu. Zorionak bikote! Domekan elkarrekin ospatuko dugu. Muxu handi bat etxeko danen partez!



> Zorionak izeko! gaur urte bat gehiago. Disfrutatu eguna eta mosu potolo bat etxeko guztion partez, batez be Haizearen eta Jakesen partez.



> Kaixo pottola! Mila izar zeruan, eurek biztutzean zeure amets guztiak bete daitezela. Mila mosu ta besarkada potolo bat Trazolatik. Ondo paseu merendolan. Zorionak!

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

**Maide**  
akindegia-gozatagia

Zorionak **Ander Gaztelurrutia!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

# Aurkitu zure diamanteak Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangaldean unibertsitate garaia bezalako hurrengo generazioak erakartzen dituzten diamanteak.

- Inbentario, jarririk eta aliatuak eskuratu.
- Mexanika eta xan ozeitar autoretarako osoko sailer-zentratua

**AGUINAGA TALDEA**

Bizkaiko Mercedes-Benz ko irazlearen ofizial bakarra  
 info@aguinaga.es | info@taldea-bizkaia.com | www.taldea-bizkaia.com

Jorrea Induraino, 2. Naztoa 4  
 48941 20100 Durango  
 Tel: 94 530 7447

## “Euskaldunok ere gustuko dugu nazioarteko musika entzutea”

Ainhoa Vitoria goizeko zazpietatik hamarretara Gaztea Irratiak eskaintzen duen ‘Dida’ saioko esataria da

**> AKUILUA** Martxel Zubia Ainhoa Vitoria, Gaztea Irrati-ko esataria, Arrasatekoa da, baina Berrizen bizi da due- la urte batzuetatik. Mondra- gon Unibertsitateko Eskoria- tzako kanpusean egin zituen Ikus-entzunezko Komunika- zio graduko ikasketak.

**Zein da zure asteko ordute- gia?**

Astelehenetik barikura izaten da *Dida*. Programa 07:00eta- tik 10:00etara izaten da, baina 06:30ean estudioan egon behar dut, eta Berrizera 16:00 aldera heltzen naiz.

**Zertan datza ‘Dida’?**

*Dida* saioan denetarik egiten dugu, informazioa ematen du- gu, umorea eskaintzen dugu, eta baita beste hainbat gauza ere. Gai guztiak jorratzen ditu- gu: moda, kirola, musika zein teknologia. Azken finean, ma- gazin bat da.

**Gaztea Irratiko esataria zara. Zelan sartu zinen Gaztea Irra- tian?**

Hautapropa bati esker sartu nintzen. Unibertsitateko lauga- rren mailan nengoen, eta Gaz- teak hautapropa bat zabaldu zuela esan ziguten. Audio bat bidali behar genuen, eta bertan kantatu batzuk aurkeztu behar genituen, eta nik, probatzea- rren, bidali egin nuen. Ez nuen espero hautaprobaren biga- rren atalera igarotzerik, baina igarotzea lortu nuen. Bigarren proba horretan test antzeko bat egin ziguten musikaren in- guruko galderekin, eta horrela hartu ninduten.

Arrasatekoa izanik, irratiaz gainera, Goiena herri komuni- kabidean ere iritzi artikulua idazten dituzu.

Bai, idazten ditut, baina urtean behin. Lehen, telebistaren in- guruko zutabe batean idazten nuen sarritan, baina utzi egin nuen, eta orain urtean behin idazten dut.

**Egunero pertsona askok ent- zuten zaituzte irrastian, fama- tua zarela esan daiteke. Ka- lean zabiltzanean jendeak ezagutzen zaitu?**

Ez, normalean ez. Noiz edo noiz baten bat gerturatu izan zait, baina ez da normalena. Geratzen nauten gehienetan herrian izaten da, horregatik nahiko lasai ibiltzen naiz kale- tik, arazo barik.

**Jende askok dio Gaztea Irra- tiak ez duela bertako musika bultzatzen.**

Hori ez da egia. Gaztean entzu- ten dira euskal talderik garran- tzitsuenak, eta, horretaz gai- nera, oraintxe bertan make- ta lehiaketagaz gabiltza. Berta- tik irten dira Euskal Herriko talderik onenak. Beste arlo ba- tzuetan agian esan daiteke, adi- bidez, faltan botatzen direla es- tilo batzuk. Duela gutxi esan di- gute hip hop gutxi entzuten de- la Gaztean, eta hori egia da.

**Nahikoa bultzatzen dela uste duzu? Edo gehiago egin dai- teke?**

Argi dago beti egin daitekeela gehiago. Kontuan izan behar da Gaztea batez ere Europara begira dagoen irrati bat dela, nazioartera begira. Izan ere,



euskaldunoi ere gustatzen zai- gu nazioarteko musika entzu- tea. Guztiari eman behar zaio garrantzia, eta argi dago inoiz ez garela konforme egongo, baina nik uste dut harro egote- ko moduko lana egiten dugula Gaztean.

**Gazteak 25 urte bete ditu. As- ko aldatu da hasierako urtee- tatik gaur arte? Zer edo zer kontatuko zizuten.**

Ez dakit zelakoa zen duela 25 urte, baina kontatu didatena- gatik ez dauka zerikusirik. Uste dut lehen ez zeukatela ordenagailurik ere, idazteko makinekin idazten zuten, eta biniloak erabiliz jar- tzen omen zuten musika. Horrek guztiak esan nahi du lana askoz gogorragoa zela garai haietan, bai musika jartzeko orduan, bai informa- zioa bilatzeko orduan; hau da, lan mekanikoa nahiko erraztu dela esan daiteke. Gainera, lehen programa gutxiago zeu- den, musika entzuteko irrati bat zen, eta gaur egun albisteak ere entzun daitezke.

**Jende askoren iratzargai- lua da Gaztea Irratia. Zein da Ainhoa Vitoriaren iratzargai- lua?**

Ainhoa Vitoriaren iratzargai- lua alarma da. Oso goiz irte- ten naiz etxetik, eta oraindik irrastian ez da gauza askorik egoten; horregatik, grabatuta- ko irrati programak entzuten ditut goizetan. Esnatzen naizen momentuan ez dut irratiarik entzuten, ez naiz irratiagaz es- natzen, alarma narras bategaz baizik.

### LAUHORTZA

**MARISA BARRENA**



#### Elizaren zergak

Gazte ginela “eliza pobre de- nontzat hobea” kantatu genuen behin baino gehiagotan. Al- daketa garaia zeterrelakoan, elizaren pribilegioen aurkako zelanbaiteko oihu bihurtu zen abestia. Elizak, ordea, bere urre eta ingurumariekin jarraitu zuen, eta asko eta asko fedea gal- du eta aldendu egin ginen.

Edozelan be, sinesgabe iza- teak ez gaitu Eliza katolikoari ordaintzen dizkiogun zergeta- tik libratu. Sinestedun ala lai- zista, gure soldata edo errenta aitortenetik kentzen diguten dirutik, “katolikoki” ordaindu behar ditugu, esate baterako, Osakidetzaren ospitaletako zer- bitzu erlijiosoengatiko 545.000 euroak edota espetxeetako 300.000 euroak. Gainera, horri eskoletako erlijio irakasleen eta elizgizonen soldatak gehitu behar dizkiogu, besteak beste.

Laster dator errenta aitorte- na egiteko garaia; bertan biz- kaitarrok 0,7a Eliza katolikoari edo elkarte sozial bati eman nahi diogun markatu ahalko dugu. Eta zer gertatzen da egin- da heltzen zaizkigun aitorte- nekin? Hemen dago gakoa. Al- dundiak bidalitakoarekin ados bagaude, horrela joango dira aurrera, eta, antza denez, horie- tan guztietan Aldundiak egiten du aukera, eta 0,7 hori elizari ematen dio.

Estatu laikoan bizi garela dio- te, baina elizari ordaindu beha- rrekoak garesti samar irteten zaizkigu, kontuan izanda, gai- nera, denon artean mantentzen dugun eliza horretara joaten den jende kopuru urria. Halan zein holan, elizaren zenbait gastutatik ez gaitu inork erraz libratuko, baina behintzat, ea geuk aukeratzen dugun 0,7 hori nori eman.



**MILA BAIETZ**

- 1.000 HARPIDEDUN ZORNOTZAN -

